





# ESKOLA PUBLIKOA KANTARI

EUSKAL  
ESKOLA  
PUBLIKOAREN  
JAIA



**Abestu nahi genioke  
ozenki Mari Jaiari...**

# ARURKIBIDEA

## ÍNDICE

---

- |    |   |    |                             |
|----|---|----|-----------------------------|
| 4  | ABERRIAREN MUGAK                          | 33 | BERMIOKO PORTUAN            |
| 5  | AGUR EUSKAL HERRIARI                      | 34 | BILBO KANTARI               |
| 6  | AGUR, XIBEROA                             | 35 | BIZKAIA MAITE               |
| 7  | AI, ZE POLITA                             | 36 | BIZKAIKO ABERATZAK          |
| 8  | AITA-SEMEAK                               | 37 | BOGA, BOGA                  |
| 9  | AITORREN HIZKUNTZ ZAHARRA                 | 38 | DE TREVILLEREN AZKEN HITZAK |
| 10 | ALA KINKIRI, ALA KUNKURU                  | 39 | EGUN DA SANTI MAMIÑA        |
| 11 | ALDAPEKO                                  | 40 | EPERRAK                     |
| 12 | AMA (AI, ZER PLAZERRA)                    | 41 | ERROTA ZAHARRA              |
| 13 | AMAK EZKONDU NINDUEN                      | 42 | EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ     |
| 14 | AMETS                                     | 43 | EUSKAL HERRIKO              |
| 15 | AMNISTIAREN DEMA                          | 44 | EUSKALDUNAK GARA!           |
| 16 | ANBOTOTIK OIZERA                          | 45 | EZ DUT NAHI                 |
| 17 | ANTTONI ETA ANTTON                        | 46 | FORJARIEN KANTA             |
| 18 | ARBOLA                                    | 47 | FURRA FURRA                 |
| 19 | ARROSAKO ZOLAN                            | 48 | GAZTE NIZ ETA ERE LORIOS    |
| 20 | ARTOLAK DEUKO - SAN ANTONIO               | 49 | GAZTERI BERRIA              |
| 21 | ATHARRATZEKO GAZTELUKO KANTUA             | 50 | GOIZIAN ARGI HASTIAN        |
| 22 | AZKEN AGURRAREN NEGARRA                   | 51 | GOIZIAN GOIZIK              |
| 23 | AZKEN DANTZA                              | 52 | GOIZUETAN                   |
| 24 | BAGARE                                    | 53 | GORA TA GORA BETI           |
| 25 | BAI EUSKARARI                             | 54 | GORBEIAKO LARRAN            |
| 26 | BALDORBA                                  | 55 | GREZIAKO ITSASONTZIA        |
| 27 | BANANGOA (Aitte San Migel)                | 56 | GUK, EUSKARAZ               |
| 28 | BARATZE BAT                               | 57 | GURETZAT                    |
| 29 | BATASUNA                                  | 58 | HABANERA                    |
| 30 | BEGIAK PARREZ PARREZ                      | 59 | HAIKA MUTIL                 |
| 31 | BEHIN BATIAN LOIOLAN<br>(Loiolan jai jai) | 60 | HAURTXO POLITA              |
| 32 | BEHIN BETIKO                              | 61 | HERRIBEHERA JOTA            |
|    |   | 62 | HERRIKO FESTAK              |

- 
- |  |                             |
|--|-----------------------------|
| 63 HESOLA  | 92 MARTXA BATEN LEHEN NOTAK |
| 64 IKUSI MENDIZALEAK   | 93 MATALAZ                  |
| 65 IKUNTZEAN   | 94 MENDIAN GORA             |
| 66 ITSASOAN URAK HAUNDI  | 95 MUÑAGORRIREN BERTSOAK    |
| 67 ITSASONTZI BATEN  | 96 NERE ETXEA               |
| 68 ITURINGO AROTZA   | 97 NERE SENTIMENTUA         |
| 69 IZOTZ-ONDOKO EGUZKI   | 98 OI, AMA ESKUAL HERRI     |
| 70 JAUN BARUAK   | 99 OI, KANTA BERRI          |
| 71 JOHN ZAHARRA  | 100 OI, PELLO, PELLO        |
| 72 JOSE MIGEL / IXIL-IXILIK / BAT,BAT,BAT<br>ANTERON / KALIAN GORA / HAU DEK | 101 PELLO JOXEPE            |
| 73 KALERA, KALERA  | 102 POTTOKA                 |
| 74 KATALINTXU  | 103 PRIMA EIJERRA           |
| 75 KATTALIN  | 104 SALAMANCARA             |
| 76 KOBLAKARI   | 105 SASITIK SASIRA          |
| 77 KOLDOBIKE   | 106 TOPA DAGIGUN            |
| 78 KONTRAPAS   | 107 TRISTE BIZI NAIZ ETA    |
| 79 LAU HAIZETARA   | 108 TXAKURRAREN PARTIA      |
| 80 LAU TEILATU   | 109 TXALAPARTA              |
| 81 LEPOAN HARTU TA SEGI AURRERA  | 110 TXANTXIKITIN            |
| 82 LORETXOA  | 111 TXIKIA                  |
| 83 LORIAK UDAN   | 112 TXORIA TXORI            |
| 84 MAITE, MAITE  | 113 URRIAREN 28a            |
| 85 MAITE ZAITUT  | 114 USO XURIA               |
| 86 MAITIA, NUN ZIRA?   | 115 XALBADORREN HERIOTZEAN  |
| 87 MAITIAK GALDE EGIN ZAUTAN   | 116 XARMENGARRIA ZIRA       |
| 88 MARIA SOLT ETA KASTERO  | 117 XORIERI MINTZO ZEN      |
| 89 MARIJAI   | 118 ZENBAT GERA             |
| 90 MARITXU, NORA ZOAZ?   |                             |
| 91 MARKOXEN TXARRIXE   |                             |

## **ABERRIAREN MUGAK**

---

Nire aberria lurra bezain zaharra da  
baina ez da lurra bakarrik,  
haizeak bezala inguratzen nau eta  
lotzen, askatzen naularik.

Nire aberria suaren antzekoa da,  
beti bera, berria beti,  
epeltzen nau kanpoan hotz dagoenean  
ta erretzen ere badaki.

**Aberriaren mugak, euskararenak,  
gure baitan daude gehienak,  
euskara zabalduaz lau haizeetara  
zabalago egiten gara.**

Nire aberria harrizko herria da,  
hitzekoa eta hitzekoa,  
altzairuzko txakolin, ardo zurezkoa  
eta hondar anonimoa.

Nire aberria burdin bihurria da  
oroimenaren arindua,  
itsaslaminen baten herdoilezko kantu  
etorkizunez fosildua.

**Aberriaren mugak...**

# AGUR EUSKAL HERRIARI

---

**Zazpi Euskal-herriek  
bat egin dezagun,  
guztiak bethi-bethi  
gauden gu euskaldun.**

**1.**

Agur eta ohore  
Euskal-herriari,  
Lapurdi, Baxenabar,  
Zibero gainari,  
Bizkai, Napar, Gipuzko  
eta Arabari,  
zazpiak bat besarka  
lot beitez elgarri.

**2.**

Haritz eder bat ba da  
gure mendietan  
zazpi adarrez dena  
zabaltzen airetan.  
Frantzian, Espainian,  
bi alderdietan,  
hemen hiru, eta han lau,  
bat da zazpian.

**3.**

Hi haiz, Euskal Herria,  
haritz hori bera,  
arrotzak nausiturik  
moztua sobera.  
Oi, gure arbasoak,  
ez, othoi, ez beira  
zein goratik garen gu  
jausiak behera!

Hitzak: Nicolas Ormaetxea "Orixe" / Musika: Urko / Abeslaria: Urko  
"Sakonki maite zaitut Euskal Herria" (1976)

## AGUR, XIBEROA

---

Sor leküa ütirik gazte nintzalarik  
Parisen sartü nintzan korajez beterik,  
plazerez gose eta bürüan hartürik  
behar nüala alegera bizi,  
bostetan geroztik  
nigar egiten düT Xiberoa zuri.

**Agur, Xiberoa, bazter güzietako xokorik ejerrena,  
agur, sor leküa, zuri ditit ene ametsik goxoenak,  
bihotzan erditik bostetan elki deitadazüt hasperena,  
zü ütiz geroztik bizi niz tristerik, abandonatürik,  
ez beita herririk, Paris ez besterik, zü bezalakorik.**

Palazio ejerretan gira alojatzen  
eta segür goratik aide freska hartzen,  
gain behera so (e)ginik betzait üdüritzen  
Orhi püntan nizala agitzen,  
ben´ez dira heben  
bazterrak berdatzen, txoriak kantatzen!

**Agur, Xiberoa, bazter güzietako...**

Ametsa lagünt nezak ni Atharratzera  
ene azken egüen han iragaitera,  
Orhiko xoriaren kantüz behatzera,  
parka ditzan nik egin nigarrak,  
hots! Xiberotarrak  
aitzinean gora eüskaldün bandera.

**Agur, Xiberoa, bazter güzietako...**

Hitzak, musika: Pierres Bordazahar "Etxahun Iruri" (1946. urtean) / Abeslaria: Hainbat zuberotar  
"Etxahun" (2000) / Oskorri "The pub ibiltaria 6" (2002)

## **AI, ZE POLITA**

---

Arrantzaleak ta baserritarrak,  
langileak, danok anaiak,  
itxas ertzetik ta legorreraino  
izan gaitezán danok alaiak.

Lekeitio, Ondarru, Bermioko portua,  
Uribe Kosta eta Ezkerralde,  
gure jendea bai dala sanua,  
beti dago euskararen alde.

**Ai, ze polita dan gure Bizkaia!  
Ai, ze polita Anbotoko Dama!  
Busturi, Lea-Artibai ta Arratia,  
Bizkaia osoa da gure ama. (bi)**

San Antonio Urkiolan dago eta  
mutil zaharrak daukaguz pozik,  
Bakioko txakolina hartuta  
neska zaharrak engainaturik.

Pelotariak, baita aizkolariak,  
txinga-erute ta sokatira,  
arraunlari ta txirrindulari,  
ta gora beti Athletic-ari.

**Ai, ze polita dan gure Bizkaia!...**

Hitzak: Asier Muniategi / Abeslaria: Jokaldi "Enbido" (1992)



# AITA-SEMEAK

---

## **Aita-semeak tabernan daude, Ama-alabak, jokoan. (bi)**

**1.**

Berriz ikusi beharko dugu  
behi gizena auzoan,  
berriro ere ez da faltako  
trapu zaharrik kakoan.

**2.**

Eta lapurrek ohostu dute  
guk gendukana etxean,  
eta gu gaude erdi biluzik  
beti inoren menpean.

**3.**

Hondamendia gertatu zaigu  
geure etxean horrela,  
guziok bizi bahi dugu baina  
nola biziko bestela.

**4.**

Geurea dugu erru guztia,  
geurea dugu osoa,  
ez inori ba errua bota  
Euskal Herria hiltzean.

**5.**

Baina gaztea naiz eta daukat  
etorkizuna eskuan,  
ez zaigu hilgo Euskal Herria  
ni bizi naizen artean.

# AITORREN HIZKUNTZ ZAHARRA

---

**1.**

Aitorren hizkuntz zaharra  
nahi degu zabaldu,  
munduaren aurrean  
gizonki azaldu,  
baldin gure zainetan  
odolik badegu  
euskaldunak euskaraz  
hitz egin behar degu.

**3.**

Etsaiak aurka dabiltz  
euskerarengatik  
lehen, orain eta beti,  
guztiz aspalditik,  
lurperatu nahirikan  
antzina antzinatik,  
ez dute hori lortuko  
inungo aldetik.

**5.**

Gora euskera maitea,  
zoragarriena,  
euskaldunen artean  
maitagarriena,  
munduan sortu zanik  
hizkuntzik zaharrena,  
gora ta gora euskaldunak  
eta gure euskera!!!

**2.**

Zein hizkuntza ederra,  
euskera guria,  
inun ez det aurkitzen  
beste bat hobia,  
usai gozodun hizkuntz  
txukun ta argia,  
biraorikan ez duen  
hizkera garbia.

**4.**

Euskera galdutzeko  
ez dago beldurrik,  
munduan ez da sortu  
hortako indarrik,  
sasi-jakintsu asko  
dabiltz galdu nahirik,  
asmo txar horrek guztiak  
dirade alperrik.

Hitzak, musika: Ciriaco Andonegi / Abeslaria: Urretxindorak (1968)  
Oskorri "The pub ibiltaria 3" (1999)

## **ALA KINKIRI, ALA KUNKURU**

---

Erran dut, erranen eta errango,  
ez naiz isilik egongo,  
plaza hontako dama gazteak  
ez dira moja sartuko.

**Ala kinkiri, ala kunkuru,  
ala kinkiri kunkuru kanta,  
ala kinkiri kunkuru kanta,  
gu bezalakoak dira,  
hola! (bi)**

Erran dut, erranen eta errango,  
ez naiz isilik egongo,  
plaza hontako mutil gazteak  
ez dira fraile sartuko.

**Ala kinkiri...**

Erran dut, erranen eta errango,  
ez naiz isilik egongo,  
plaza hontako gazte guztiak  
ezkontzan dira sartuko.

**Ala kinkiri...**

## **ALDAPEKO**

---

Aldapeko sagarraren  
adarraren puntan  
puntaren puntan  
txoria zegoen kantari. (bi)

Txiruliruli, txiruliruli,  
nork dantzatuko ote du  
soinutxu hori?

Herri kanta / Abeslaria: Oskorri "The pub ibiltaria 1" (1997)

## AMA (AI, ZER PLAZERRA)

---

Ai, zer plazerra bost urthen bürüan sor-lekhülat ützültzia ene herria, etsitü nüan, zure berriz ikhustia.  
Aski sofritüz nik hanitxetan desir nükian hiltzia  
ez bazüntüdan hain maite ükhen, oi, Ama Eskual Herria.

Hanitxen gisa partitü nintzan etsarien güdükatzera,  
gogua bero, bihotza laxü eta kasik alagera,  
ez benakian, orain ordüan, zer zen amaren beharra  
hari phentsa eta biga bostetan aiher zitazün nigarra.

Erresiñola khantari eijer libertatian denian  
bena trixtüran higatzez dua kaloia baten barnian.  
Gü ere, ama, hala güntüzün tirano haien artian  
zure ametsa kontsolagarri, trixtüra handienian.

Orhiko xoria da den bezala fidel Orhi bortüari  
eüskaldün güziak gütüzü, ama, zure zerbütinari  
alageraki lehen bezala, egin izagüzü erri  
ikhusten gütüzü otoitzetan zure arbola saintüari.

Sortü berriak, bere küñatik, lehen elia dü "ama"  
bere ilüsiõne ejerrean, ez dezazüla abandona  
zure amodioaz parka itzaozü bizitze hontako penak  
begira dezan azken hatsetan, azken hitza zure ama.

La, la, la, la..... oi, Ama Eskual Herria.

Hitzak, musika: Pierres Bordazahar "Etxahun Iruri" (1946. urtean) / Abeslaria: Oskarbi "Abesti zahar eta berriak" (1970) / Erramun Martinikorena "Baigorriko artzain laboraria" (1978)  
Etxahun Iruri, Battita Arabarko "Etxahun" (2000) / Oskorri "The pub ibiltaria 7" (2003)

## AMAK EZKONDU NINDUEN

---

Amak ezkondu ninduen  
hamabost urtekin, (bi)  
senarrak bazituen  
larogei berakin,  
eta ni, neskatila gaztea,  
agure zaharrarekin. (bi)

“Ama, zertarako dut nik  
agure zahar hori? (bi)  
hartu ta lehiotikan  
jaurti behar dut nik,  
ai, ene! ene lehiotikan  
jaurti behar dut nik.” (bi)

“Neska, hago isilikan,  
aberatsa dun hori, (bi)  
pazientziz pasa itzan  
urte bat edo bi,  
hori hilez geroztikan  
biziko haiz ongi.” (bi)

“Deabruak daramala  
interesatua, (bi)  
a baino nahiago dut nik  
adin berekoa  
ai, ene! hogeit bat urteko  
gazte loratua.” (bi)

## AMETS

---

Amets, amets egin  
itsas gizona,  
amets, zure ametsa  
gertau leikela. (bi)

Berriz etorriko zera  
Ondarruko kaiera.  
Han daukazu maitea,  
itxaroten dozuna.  
Berriz etorriko zera  
zure txaluparekin.  
Han daukazu maitea  
ta bihotza. (bi)

Amets, amets egin... (behin)

Berriz etorriko zera...

## **AMNISTIAREN DEMA**

---

Amnistiaren alde, zigortuen alde,  
gu ere haiekin bat zigorpean gaude,  
ez dugu izaiterik aske haiek gabe,  
haiekin askatuko bait gara gu ere.

**Amnistiren dema,  
garaipen eguna,  
lortzen ari garena,  
lortuko duguna.**

Amnistiaren demak bakea du izar  
eta askatasuna oinarrizko indar,  
herri dena abian, hego eta ipar,  
gaur borroka dugu ta garaipena bihar.

**Amnistiaren dema...**

Zaudete zihur haiek ez dute etsiko,  
ez ditugu guk ere horrela utziko,  
denak noizpait etxean zutik eta tinko,  
egon ziur lortuko dugula betiko.

**Amnistiaren dema...**



## **ANBOTOTIK OIZERA**

---

Anbototik Oizera  
erratzak airean  
sorginak bazebiltzan  
bideko librean. (bi)

Bota zieten ura  
Durango parean  
erratzak itzalita  
erori zirean. (bi)

Kondenatuak gero  
barkamenik gabe  
infernuko auspoa  
salbatu halare. (bi)

Bidekotxo bat haien  
arimaren alde  
eta erromeria  
bizirik badaude. (bi)

# ANTTONI ETA ANTTON

---

**(mutilek)**

**Anttoni! Anttoni!**  
**zure atean nago ni.**

## **1. (mutilek)**

Hormatxoriak negu gorrian  
ez du atsegin elurra:  
zerua goibel, kabia hotza,  
eta janari gabe lurra.  
Ai, maite, nire bihotzak duen  
zure hotzaren beldurra!  
Biontzat kabi bat berotzeko  
bilduko nuke egurra.

## **3. (mutilek)**

Enarak ere bere kabia  
galduta badu ikusten,  
biderik gabe, haruntz ta honuntz  
kabitik du alde egiten.  
Egarri dagoen nire bihotza  
zuk eman ezik edaten  
berriro ere ibiliko da  
gogorik gabe nonbaiten.

**(mutilek)**

**Anttoni! Anttoni!**  
**kalabazale ez naiz ni.**

**(neskek)**

**Ai, Antton! Ai, Antton!**  
**ate ondoan hor konpon!**

## **2. (neskek)**

Enarak ez du behin egindako  
kabirik inoiz aldatzen:  
urtero beti kabi haretan  
kumeak ditu bazkatzen.  
Baina zu, Antton, enara txarra  
zaitut niretzat bilatzen;  
jai bakoitzean neska berria  
ikusten zaitut maitatzen.

## **4. (neskek)**

Zure bihotza egarri dela  
esan didazu bertsotan;  
neronek ere ikasia dut  
arrazoi duzula hortan.  
Zu beti zabiltz edari bila,  
ikusi zaitut askotan,  
baina neurritz gain egarri hori  
itotzen duzu ardotan.

**(neskek)**

**Ai, Antton! Ai, Antton!**  
**haize freskoari, gabon!**

## ARBOLA

---

Arbola gainian xoria da kantatzen,  
kantatzen da eta bazterrak inarrausten,  
inarrausi eta hostoa da erortzen,  
euskal bihotza da bilaiz egoiten,  
bilaizi onduan han dira errabian  
xiloka beltzian handik elki nahian,  
handik elki eta kantatzera abian  
lagun zonbait bidian ikusiko agian. (bi)  
La, la, la...

Goiz argi eder bat beti jeikitzen nunbait,  
nunbait jeiki eta zorionean zonbait,  
bizi hobeago denek dukete gogo  
bainan bakarrik ezin egin asmo.  
Haur baten sortzeko sofritze beharrezko,  
bizi hobetzeko, legeen bihurtzeko  
nor da abiatzen? lagun zonbaiten biltzen  
herriaren salbatzen herioari kentzen. (bi)  
La, la , la ...

Gaur Euskal Herrian zuhaina da landatzen,  
landatzen da eta gero fruitu ekartzen,  
fruitu ekar eta haizua da kexatzen,  
iraultzalaria madarikatzen...  
jar giten ilduan igeli izerdian,  
izerdian eta lepo zainak hegian,  
besoez ta botzez, hortzez eta haginez  
lagun bat zorionez ikusiko dugunez. (bi)  
La, la , la ...

## ARROSAKO ZOLAN

---

Arrosako zolan kantu zirimolan  
nahiz eta telebistan ez gaituzten modan,  
euskararen garra, lokarri azkarra,  
gau ilun honetako gure artizarra  
zazpiehun langilez, sutsu ta ekilez,  
oraina ta geroa ez ditaizke berez,  
kontzertu honen bidez, musika ezteiez,  
euskal izen ta izana betikotz bat bitez! (bi)

Koka ta hanburgesa, euskaldun baldresa  
gustua galtzea ere zer dugun errea!  
Kendu nahi digute bihotz ta bertute,  
izaki klonikoak egin nahi gaituzte;  
jo dezagun bada, goraki aldaba  
multinazional hoi en herria ez gara,  
bretoi ta korsikar, kanak ta okzitandar  
nor bedera izaiteko har dezagun indar! (bi)

Munduko herrien ta irrati libre en  
bilgune goxoa guk dugu urtero hemen  
uhainen ildoan, asmoak geroan,  
elkarren ezagutza daukagu gogoan;  
munduko erronkak, herrien borrokak,  
bildu gara hausteko zapalkuntzen sokak,  
dantza ta irria, kantuz ilargia,  
gau hontan zoriontsu da Euskal Herria. (bi)

Hitzak: Aitor Renteria "Txato" / Musika: Pello Agorrody / Abeslaria: Aire ahizpak /  
Imuntzo eta Beloki "Gezurra ez da egia" (2011)

# ARTOLAK DEUKO - SAN ANTONIO

---

Artolak deuko, Artolak deuko,  
Artolak deuko famia  
bera deuela, bera deuela  
mundu guztiko jendia. (bi)

Goxean Parisen, gaubean Parisen,  
Parisko kalean luzea!  
Auxe kalea paseu ezker  
atzeko mandoa neurea. (bi)

## 1.

Durangon bazkaldute  
Mañarien gora (bi)  
Urkiolara goaz, morena,  
San Antoniora, ai, oi, ei. (bi)

## 2.

Urkiolara joan da  
zapatak urrutu (bi)  
Aite San Antoniok, morena,  
barriek engoitzuz, oi, ei. (bi)

## 3.

Urkiolara joan  
Mañariti gora (bi)  
trokotza sartu nauan, morena,  
eperditi gora, ai, oi, ei. (bi)

## 4.

Aite San Antonio  
Urkiolakua (bi)  
askoren bihotzeko, morena,  
santu debotua, ai, oi, ei. (bi)

## 5.

Askok egiten dotso  
San Antoniori (bi)  
egun batian joan, morena,  
bestean etorri, ai, oi, ei. (bi)

## ATHARRATZEKO GAZTELUKO KANTUA

---

Ozaze Jaurgainian bi zitroin doratü  
Atharratzeko Jaunak bata dü galdatü;  
üken dü arrapostü eztirela huntü,  
huntürik direnian batto ükenen du.

Portaliaia joan zite, ahizpa maitia,  
ingoiti horra düzü Atharratzeko Jauna;  
otoi, erran izozü ni eri nizala,  
zazpi egün hoietan ohian nizala.

Klara, zuaza orai salako leihora,  
ipharra ala hegua denez jakitera;  
ipharra balinbada goraintzi Salari,  
ene korpitzaren txerka jin dadila sarri. (bi)

Ama, juanen gira oro elkarreki,  
etxerat jinen zira xangri handireki,  
bihotza kargatürik, begiak bustirik,  
eta zure alaba tunban ehortzirik. (bi)

Ama, saldu nauzü biga bat bezala,  
bai eta desterratü, oi Espainiala;  
aita bizi üken banü, ama, zü bezala,  
enündüzün ezküdüren Atharratzeko salala. (bi)

Herri kanta / Abeslaria: Benito Lertxundi "…ukan dezadan plazerra" (1975)  
Jean Mixel Bedaxagar "Otea lili denean" (1995)

## AZKEN AGURRAREN NEGARRA

---

Nora zoaz, eskual semea,  
arma hori eskuan?  
Armen hartzera deitzen naute  
frantsen aldera. (bi)

Eskualherritik urrunduz,  
ta atzerrira joanak,  
a ze negarra entzunen duzu  
Eskualherrietan. (bi)

**“Morts pour la patrie”**  
**“Morts pour la patrie”...**  
**eskuara baizik ez zekiten haiek**  
**“Morts pour la patrie”. (bi)**

Gure istorian zehar  
zenbat malko ta ezbehar!  
Landetaratu gindutenekilan  
dugu orai hil behar... (bi)

Bere ama agurtu du  
etxolako atarian;  
bere amak bisitatuko du  
atzerriko hilobian. (bi)

**“Morts pour la patrie”**  
**“Morts pour la patrie”...**  
**eskuara baizik ez zekiten haiek**  
**“Morts pour la patrie”. (bi)**

Hitzak, musika: Gorka Knörr / Abeslaria: Gorka Knörr “Nik nahi dudana” (1975)

## AZKEN DANTZA

---

Azken dantza hau,  
maitia, zurekin  
nahi zinduzket  
ereman nerekin.  
Bainan gaurko xedia  
ezin daike betia,  
badakit nik ere  
bihar dela joaitia.

**Bego pena hau  
itzuliren naiz,  
bai, berriz Euskal Herrirat.  
Bego urte hau  
etorriko naiz  
betikotz zure ondorat.**

Azken dantza hau  
ez da sekulako.  
Zin egina dut,  
zin egin betiko,  
hemen, gure lurrean  
bizi behar dudala.  
Hori ez bada  
hilotz jar nadila.

**Bego pena hau...**

Hitzak, musika: Manex Pagola / Abeslaria: Pantxoa eta  
Peio "Peio Ospital eta Pantxoa Carrere" (1975)



# BAGARE

---

**Araban, bagare,  
Gipuzkun, bagera,  
Xiberun, bagire  
ta Bizkaian, bagara, (bi)  
baita ere  
Lapurdi ta Nafarran.**

Guztiok gara euskaldun,  
guztiok anaiak gara,  
nahiz eta hitz ezberdinez,  
bat bera dugu hizkera. (bi)

**Araban, bagare...**

Herri bat dugu osatzen  
eta gure zabarkeriz  
ez daigun utzi hondatzen.

Bagare, bagera,  
bagire, bagara,  
euskara azkartzeko  
oraintxe dugu aukera.  
Bagare, bagera,  
bagire, bagara,  
Euskadi askatzeko  
oraintxe dugu aukera.

Hitzak: Bittor Kapanaga / Musika: Gontzal Mendibil / Abeslaria:  
Gontzal Mendibil eta Xeberri "Zaurietatik dario" (1976)

# BAI EUSKARARI

---

**Eta bai!, eta bai!,  
nik euskarari bai ta bai!  
Eta bai!, eta bai!,  
guk euskarari bai ta bai!**

## 1.

Uso zuria, uso gorria,  
dantzan nabil suaren gain.  
Uso gorria, uso zuria,  
herriak euskarari bai!  
Neure kabia daukat garretan,  
neure umeak neure zain,  
nago odoletan, garretan,  
txinparta gainetan  
neure umeak neure zain.

## 3.

Uso zuria, uso gorria,  
dantzan nabil suaren gain.  
Uso gorria, uso zuria,  
herriak euskarari bai!  
Neure kabia daukat garretan,  
neure umeak neure zain,  
nago odoletan, garretan,  
txinparta gainetan  
neure umeak neure zain.

## 2.

Uso zuria, uso gorria,  
dantzan nabil suaren gain.  
Uso gorria, uso zuria,  
herriak euskarari bai!  
Neure kabia daukat garretan,  
neure umeak neure zain,  
nago odoletan, garretan,  
txinparta gainetan  
neure umeak neure zain.

## 4.

Uso zuria, uso gorria,  
dantzan nabil suaren gain.  
Uso gorria, uso zuria,  
herriak euskarari bai!  
Neure kabia daukat garretan,  
neure umeak neure zain,  
nago odoletan, garretan,  
txinparta gainetan  
neure umeak neure zain.

**Eta bai!, eta bai!,  
nik euskarari bai ta bai!  
Eta bai!, eta bai!,  
guk euskarari bai ta bai!**

## BALDORBA

---

Ezkil gabeko elizen eremu emankorra  
giza murzuriko zure ardientzat.

**Oi, Baldorba! Oi, Baldorba!**  
**eguzki eta haize idor,**  
**mahats-ardo ibai galburuarena.**

Lur gorri, harri landu,  
mailu eta xixelaren kantu,  
kitarrazko alakiketan  
Armeniako kanun ahots urratuan.

**Oi, Baldorba! Oi, Baldorba!**  
**esazu nor zen bidetik**  
**baztertu zintuen madarikatua.**

Zure irriño erromanikoa  
erdi izoztu eta leloturik  
utzi zuen madarikatuaren  
izena nahi dut, izena nahi dut.

**Oi, Baldorba! Oi, Baldorba!**  
**esazu...**

Oi, Baldorba!  
zutaz oroit eta  
zuri nagozu, zuri nagozu.  
Kanta bat laburra da eta,  
pentsa zuk,  
esaten ez dizudan hartaz.

**Oi, Baldorba! Oi, Baldorba!**  
**esazu...**

Hitzak: Juan Antonio Urbeltz / Musika: Benito Lertxundi /  
Abeslaria: Benito Lertxundi "Hitaz oroit"(1996)

## BANANGOA (Aitte San Migel)

---

**1.**

Aitte San Migel Ijjurretako  
zeru altuko lorie (bi)  
agure zarrak jantzan ikusi  
t'arek eitten jjok barrie. (bi)

**3.**

Garaiko plazan otie loran  
Ermuan asentzijue (bi)  
jantzan ikasi gura dabena  
Berruetara beijjue. (bi)

**5.**

Perretxikotan nenbillenien  
Mendiolako basuen (bi)  
dama gazte bat billatu neban  
elorri baten onduen. (bi)

**7.**

Gora ta gora puntapijue  
eta gorago zerue (bi)  
hankarik altzeu ezin badozu  
makurtu eixu burue. (bi)

**2.**

Kazpel handijen intxaur saltsie  
pitxer morkuen txunpletin (bi)  
eragin eta beti eragin  
zarrok bajjeukek zer egin. (bi)

**4.**

Kalabaziek aijjena berde  
punten lorie beillegi (bi)  
txapel gorridun mutil horrexek  
krabeliñie dirudi. (bi)

**6.**

Gaztie nintzen zorue nintzen  
jarri nintzakon albuen (bi)  
amantaltxue zabaldu eta  
altzuen hartu niñuen. (bi)

**8.**

Jantzari-jantza Anbotopeko  
erromerijjen sanue (bi)  
krabelintxu bat belarrijjen da  
larrosa bille banue. (bi)

## BARATZE BAT

---

Hau da egün ejerra  
mila xoriek kanta  
tziauri ene erregina  
besoak zuri ditizüt para.

**Baratze bat nahi deizüt egin  
amets sekretüenekilan  
liliak egün jauntsi ederrenetan  
mila kolorez dantzan bihotzetan.**

Gau beltz ta sakonetik  
elkitzen nüzü hozturik  
bihotza hain tristerik  
zütaz haien berant etsitürik.

**Baratze bat nahi deizüt egin...**

Karrosa bat hor dügü  
kanpoan gure aidürü  
ez gal haboro denbora  
hiskor beitago amodioa.

**Baratze bat nahi deizüt egin...**

Maitarzün berriari  
hilargiak dü argi  
emanen deio aski  
gük elgar maita dezagün bethi.

**Baratze bat nahi deizüt egin...**

Hitzak, musika: Pier Paul Berzaitz / Abeslaria: Pier Paul Berzaitz "Baratze bat" (2000)

# BATASUNA

---

**Aupa gizona, jaiki mutil!  
Atzar emazte ta neskati!  
Borrokarako dei eginaz  
irrintzi bat dabil!  
Euskal Herria diagu zai,  
presoak eta hilak ere bai!  
Abertzale izanez gero gaur,  
gauden denok anai!**

## **1.**

Borrokari, luza zaidak eskua!  
Huna hemen nerea zabalik!  
Euskaldunok banan banan hiltzea,  
otso beltzak ez dik beste nahirik!  
Euskadiren alde loturik bagare  
goaz borrokara!  
Nagusituko bait gare!  
Gerokoak geroko utzi!  
Gaur herriak zio: Nahi diat bizi!

## **2.**

Otso beltza gauaren gauaz heldu,  
artzainak zebiltzala kalakan...  
goizean goiz odolez gorrituak,  
hamaika ardi hilak belarditan...  
Artzain kalakari, atsoak iduri,  
har makila eskuan  
eta lotu etsaiari!  
Anaien aurka ez habila!  
Otso beltzarentzat atxik makila!

## **3.**

Agur, agur! Andere Askatasuna!  
Agur, agur! Biharko Euskadi!  
"Iguzkitan dantzatuko gaituzu"  
errana diot maiteñoari!  
Besoak loturik ez dugu pestarik,  
nola dantzatuko  
biok belaunikaturik?  
Lehenik urratu gatea,  
gero libro izanen dantza egitea!

## **BEGIAK PARREZ PARREZ**

---

Begiak parrez parrez  
bihotza negarrez (bi)  
halaxe joaten nintzan, maitia,  
zugandik dolorez, ai, ai, ai. (bi)

Ama zuriak neri  
parian pasata (bi)  
ez dit agurrik egin, maitia,  
burua jirata, ai, ai, ai. (bi)

Ama zuriak neri  
ez agurrik e(g)iteko (bi)  
zer palazio dauka, maitia,  
zuri emateko, ai, ai, ai. (bi)

Palazio eder bat  
haitzaren gainean (bi)  
ez da euririk sartzen, maitia,  
ari ez dunian, ai, ai, ai,  
ez da haizerik sartzen, maitia,  
ez dabilenian. (bi)

Herri kanta / Abeslaria: Txomin Artola eta Amaia Zubiria “  
Folk-lore sorta-2” (1992) / Oskorri “The pub ibiltaria 3” (1999)

# BEHIN BATIAN LOIOLAN

## (Loiolan jai jai)

---

**1.**

Behin batian Loiolan  
erroneria zan,  
hantxen ikusi nuen  
neskatxa bat plazan;  
txoria baino ere  
arinago dantzan;  
huraxe bai polita  
han politik bazan!

**3.**

Arkitu ginanian  
inor gabe jiran  
koloriak gorritu  
arazi zizkidan;  
kontatuko dizuet  
guztia segidan,  
zer esan nion eta  
nola erantzun zidan.

**2.**

Esan nion desio  
senti nuen gisan,  
harekin hizketa bat  
nahi nuela izan;  
erantzun zidan ezik,  
atsegin har nezan,  
adituko zidala  
zer nahi nion esan.

**4.**

-“Dama polita zera,  
polita guztiz, ai!  
Bainan, hala ere, zaude  
oraindik ezkongai,  
ezkon gaitezen biok!  
esan zaidazu bai!”  
-“Nik zurekin ezkondu?  
Nik zurekin, jai-jai.”

Hitzak: Indalezio Bizkarrondo “Bilintx” / Musika: John Denver (Annie’s song) / Abeslaria: Egan  
“Kanta onenak” (1998) / Oskorri “The pub ibiltaria 7” (2003)



## BEHIN BETIKO

---

Behin betiko, behin betiko,  
sinple bezain tinko,  
ez dugu etsiko!  
Behin betiko, behin betiko,  
sinple bezain tinko,  
euskaraz ta kitto!

Etxean eta kalean,  
berdin berdin jolasean,  
eskolan, lanean,  
tristuran eta pozean,  
dakitenek erabiliz,  
ez dakitenek ikasiz,  
herri bat osaturik  
euskaraz nahi dugu bizi!

**Hasi etxetik eta kalera,  
hasi kaletik eta etxera,  
martxan jarri da lege berria:  
Euskaraz Euskal Herrian! (bi)**

## BERMIOKO PORTUAN

---

Bermioko portuan goixeko ordu bidxetan, (bi)  
ez da entzuten besterik,  
ez da entzuten besterik,  
ez da entzuten besterik,  
Txo! Atrakaixu batela!

**Egidxe da, egidxe da,  
neuk ikusikue dalako,  
egidxe da, egidxe da,  
neuk ikusikue da.**

Lau airoplano pasata, bat itsosora dxeusi, (bi)  
ekarri Sebastianak,  
ekarri Sebastianak,  
ekarri Sebastianak,  
Artzan enkalleta itxi.

**Egidxe da, egidxe da...**

Agoztuen hamabidixen Patxi Bermiora etorri, (bi)  
ekarri katxalotia,  
ekarri katxalotia,  
ekarri katxalotia,  
Puf! Artzan usteldute itxi.

**Egidxe da, egidxe da...**

El aviador de Kankapur también quería volar, (bi)  
etzo itxi trinkadoriek,  
etzo itxi trinkadoriek,  
etzo itxi trinkadoriek,  
barrabaskeije eiñ barik.

**Egidxe da, egidxe da...**

## **BILBO KANTARI**

---

Abestu nahi genioke  
ozenki Mari Jaiari,  
erdaraz kutsaturikan  
bizi den euskaldunari,  
bilbainadak jakin arren  
euskaraz ari denari,  
Euskal Herria egiten  
ari den zahar-gazteari.  
Ez pentsa gero dugunik  
hau entzutea mirari  
auzoak arnas berritzen  
ari direla nabari  
Euskal Kultura kalera  
ateratzen aintzindari  
horren lekuko garbia:  
hemen da BILBO KANTARI.

## BIZKAIA MAITE

---

Bizkaia maite  
atzo goizean ikusi zindudan  
soineko xuriz jantzia  
buruan orlegi, bihotzean sua  
nere gogoaren ertzatik pasatzen.  
Zure usain gozoa, lana,  
amodioa, itsasoa,  
nere baitan sartzen.

Atzo goizean entzun nuen  
zure berbaren oihartzuna,  
zure kantaren fereka,  
bihotzean kilika  
eta ohiartzunaren haunditasunean  
murgilduz joan nintzen  
jausika, hegaka.

Bart arratsean  
arbasoen baratzaren ondoan  
bertsotan eta dantzan  
lotu zinen alai piper eta gatza  
sabel emankorra.

Bizkaia maite  
atzo goizean ikusi zindudan  
soineko xuriz jantzia  
buruan orlegi, bihotzean sua.  
Olerkari penatuaren gozo eta mina  
amodio eta kanta  
zure berba leun,  
zure gatzaren bizia,  
zure burdinaren gorria dira gaur  
neretzat aterbe.

Bizkaia maite  
atzo goizean ikusi zindudan  
soineko xuriz jantzia  
buruan orlegi, bihotzean sua,  
lirain, sendo, eder.

Hitzak: Jose Angel Irigarai / Musika: Benito Lertxundi / Abeslaria: Benito Lertxundi  
"Zuberoa / Askatasunaren semei" (1977)

# BIZKAIKO ABERATSAK

---

**1.** Bizkaiko aberatsak dira diruzale,  
txerri-erosle eta txorizo-saltzaile.  
Dendaz bete dituzte Bilbon zazpi kale,  
inoiz ez dute eman pausorik debalde,  
burrukatzen baitute diruaren alde.

**4.** Somera, Artekale, gero Tenderia,  
han ikusi genuen mila komeria.  
Tenderoaren grinak nork erremedia!  
Gizonaren gainean han erori dira,  
hanka kendu diote, ai, zer aberia!

**7.** Ez zaitetz bertan sartu, euskaldun maitia,  
zabalik badaukazu bertako atia,  
galduko duzu eta bigarren hankia  
bai eta, bide batez, zure hankartea.  
Euskaldun batentzako zer errematia!

**2.** Arratiko gizona Bilbora doa maiz Lemoako tranbian eta beti garaiz bere artean dio umore txit alaiz traje berri batekin gaur bestituko naiz lehengo arlotea jantziko da galaiz.

**5.** Kojuaren moduan joan da ihesi hanka bakar batekin baliteke bizi.  
Mundu honetan ez da batere justizi zazpi kaleetan nahi traje bat erosi eta oinetakoa bertan behar itzi.

**3.** Hura ikusi eta dendari guztiak zaharrak geldi eta korrikan gaztiak saldu nahi dizkiote makailu bustiak gauerdiko izarrak eta eguzkiak inor engainatzeko nolako trastiak.

**6.** Euskal baserritarrak dadukan pobrezia, baino haundiagoa askoren grandeza.  
Madrildik etorri den Korte Ingelesa, bertan sartuko balitz euskaldun baldresa, dirua gastatzeko manera erreza.

## **BOGA, BOGA**

---

Boga, boga, mariñela, (mariñela)  
joan behar degu  
urrutira (urrutira)  
bai, Indietara,  
bai, Indietara. (bi)

Ez det  
nik ikusiko  
zure plai ederra.  
Agur  
Ondarroako  
itsaso bazterra.

Ez det (ez det, ez det)  
nik ikusiko  
zure plai ederra (plai ederra).  
Agur (agur, agur)  
Ondarroako  
itsaso (itsas itsaso) bazterra (bi)

Mariñela, mariñela,  
Boga!!!  
Mariñela.

## **DE TREVILLEREN AZKEN HITZAK (Herio latza)**

---

Herio latza hüilantzen ari hiz  
dolürik gabe orai nitarat,  
otoizten haüt ixtant bat ützi nezak  
ene azken adioaren egitera.

**Hori bera da denen ixtoria,  
herioak bardintzen handi ttipiak,  
zeren ilusione bat bera da  
lürren gaineko gure pasajia.**

Ene jauregi pare gabekoa,  
hiri altxatürik banüan fiertate,  
hitan igaran denbora gozoa  
hain llabür nükeala ez nian uste.

**Hori bera da...**

Oi, Basabürüa miragarria,  
bortüz eta mendiz üngüratürik,  
bostetan nik begizatü zütüet  
ürgüillükin terrasa hüntarik.

**Hori bera da...**

Adios, arren, Mari Maidalena,  
zük ingana nezazü lotarik,  
ene ondotik baratzen direnek  
izan ez nadiala ahatzerik.

**Hori bera da...**

Hitzak, musika: Pierres Bordazahar "Etxahun-Iruri" / "De Treville" pastoralara (1966) / Abeslaria: Mixel Arotce (1992. urtean) "Etxahun" (2000) / Imanol "Hori bera da denen ixtoria" (1998)

# **EGUN DA SANTI MAMIÑA**

---

**Egun da Santi Mamiña,  
benetan egun samina,  
goiko zeruan gorde dezala  
luzaro neure arima.**

Esanen dizut egia,  
hau ez da usategia,  
erroi artean izan nintzaden  
benetan ausertegia.

Itsas aldean izarra,  
hari begira lizarra,  
euskera salbo ikusi arte  
ez dut kenduko bizarra.

Kantatu zuen oilarrak,  
argitzen dira belerrak,  
Ageda gure martiriari  
moztu zizkaten bularrak.

Bularrak moztu zizkaten eta  
Euskalerrak diotsa  
solomo luze dultzerik gabe  
eman zaidazu bihotza.

Eman zaidazu bihotza eta  
ken berriz nahigabeak  
esan noiz garen izanen gure  
etorkizunen jabeak.

Hitzak: Gabriel Aresti (Harri eta herri) / Musika: Joxe Mari Arrizabalaga  
Abeslaria: Mikel Laboa (1966)



## EPERRAK

---

Eperrak badituzu bere bi hegalak  
Bai eta bürün gainin kokarda ejer bat  
Zük ere balinbazünü gatzetarsün ejer bat  
Neskatilen gogatzeko bilo hollı pollit bat.

Amorosak behar lüke izan lotsa gabe  
Gaiaz ebiltia ez üken herabe  
Egünaz ebiltia desohore leike  
Txoriak ere oro haier soz dirade.

Ebili izan nüzü gaiaz eta beti  
Eia! atzamanen nianez lili ejer hori  
Azkenian atzaman düt oi! bena tristeki  
Lümarik ejerrena beitzaiio erori.

Mündian ez da nihur penarik gabe bizi  
Nik ere badit aski hoitan segurki  
Nik desiratzen nizün ezkuntzia zurekin  
Bena ene aitak eztü entzün nahi hori.

Zure aitak zer lüke eni erraiteko  
Ala enitzaio aski aren ofizioko  
Ala zü soberaxe zitzaio enetako  
Printzerik ez ahal da orai zuenganako.

## ERROTA ZAHARRA

---

Errota zahar maitea  
uraren ertzean,  
uraren ertzean da  
basati beltzean:  
negar egiten dezu alea xehetzean,  
ni ere triste nabil zutaz oroitzean. (bi)

Zotin sekua dagi  
errotarriak;  
itzalitako izar ditzirak  
dire neretzat zure begiak.

Izar eder bat dago  
hor goiko lepuan.  
Errota zaharra, berriz,  
erreka zokoan.  
Berebiziko pena badaukat barruan:  
ezin gindezke bizi elkarren onduan. (bi)

Bizitzaren legea  
nahi det onartu  
ho(rre)la beharra koraiaz hartu.  
Berez doana zertan behartu?

Errota zahar maitea...  
La, la, la...

## **EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ**

---

Euskal Herrian euskaraz  
nahi dugu hitz eta jolas,  
lan eta bizi euskaraz eta hortara goaz.  
Ba da garaia noizbait dezagun  
guda hori gal edo irabaz.  
Zabal bideak eta aireak  
gure hizkuntzak har dezan arnas,  
ba da garaia noizbait dezagun  
guda hori gal edo irabaz.

Euskal Herrian euskara  
hitz egiterik ez bada,  
bota dezagun demokrazia zerri askara,  
geure arima hiltzen uzteko  
bezain odolgalduak ez gara.  
Hizkuntza gabe esaidazue  
nola irtengo naizen plazara,  
geure arima hiltzen uzteko  
bezain odolgalduak ez gara.

Euskal Herri euskalduna  
irabazteko eguna,  
pazientzia erre aurretik behar duguna;  
ez al dakizu euskara dela  
euskaldun egiten gaituena?  
Zer Euskal Herri litzake bere  
hizkuntza ere galtzen duena?  
Ez al dakizu euskara dela  
euskaldun egiten gaituena?

Hitzak: Xabier Amuriza / Musika: Natxo de Felipe / Abeslaria: Oskorri "Adio Kattalina" (1982)

## **EUSKAL HERRIKO**

---

Euskal Herriko semiak gera  
zor diogunak bizia  
beraren alde emango degu  
zainetako odol guztia. (bi)

Bere lege ta hizkuntza ederrari  
diegu maitasun handia  
hil arte oihu egingo degu:  
Bizi bedi Euskal Herria!!! (bi)

## **EUSKALDUNAK GARA!**

---

La, ra, la, la...

Akaso gu ez gara handienak,  
ez gara agertzen mapamundian;  
akaso gu ez gara politenak,  
ez gara ibiltzen pasareletan...

La, ra, la, la...

**Baina gure herri ederrean  
barra-barra ditugu  
festa ta umorea.  
Nongotarrak garen galdetzean,  
harrotasunez esan:  
Euskaldunak gara!**

La, ra, la, la...

Akaso ez gara Karibekoak,  
ez dugu ongi dantzatzen txa-txa-txa;  
akaso ez gara wonderfulenak,  
ez dugu atsegin hot-dog saltxitxa.

La, ra, la, la...

**Baina gure herri ederrean  
barra-barra ditugu  
festa ta umorea.  
Nongotarrak garen galdetzean,  
harrotasunez esan:  
Euskaldunak gara! (bi)**

Musika: Pepe Yanci, Xabier Zabala / Abeslaria: Pirritx, Porrotx eta Marimotots "Piratak" (2008)

## **EZ DUT NAHI**

---

**Ez, ez dut nahi, ez, ez, ez,  
ez holako zibilizaziorik.**

Kaiolaren adarrak ditugu alboan  
eskuindarrek eskua zabaldu juxtuan,  
zigor indarren menpe, tiroak gogoan....  
horrela bizitzerik ez dago munduan.

**Ez, ez dut nahi, ez, ez, ez,  
ez holako zibilizaziorik.**

Poliziak nunnahitik zerbait egitean  
pentsatuarazi nahi makil indarpean,  
irudi gu generala kaiola batean  
jarritako txoriak fusilen menpean.

**Ez, ez dut nahi, ez, ez, ez,  
ez holako zibilizaziorik.**

Horregatik ez dut nahi gizonen kutsurik,  
zibilizazioaren sasi-jaungoikorik;  
libre nahi dut bihotzez, libre loturetik,  
basurdearen gisan hortzak estuturik.

**Ez, ez dut nahi, ez, ez, ez,  
ez holako zibilizaziorik.**

Hitzak, musika eta abeslaria: Julen Lekuona (1966)

# FORJARIEN KANTA

---

**1.**

Gaur forjariak lana utzirik  
gatoz guztiok kalera  
labeak oso itzaldtu eta  
protesta bat egitera.  
Mailu burdinak bota ditugu  
hantxe bertan bazterrera  
ez dugu nahi berriro ere  
toki hartara lanera.

**3.**

Gora, bai gora beti, gora forjaria !  
langile trebe zintzo da mailukaria  
lurpera, bai lurpera beti nagusia !  
ez digute egingo nahi duten guztia.  
Ez badigu ematen arrazoia guri,  
ez badigu ematen behar legez ongi  
su emango diogu geure fabrikari  
eta nagusiaren etxe guztiari.

**5.**

Oso goizetik lanean hasi  
su eta keen artean,  
dinbili, danba ! gelditu gabe  
gutziz ilundu artean,  
arropa denak puskatzen eta  
osasunaren kaltean.

**2.**

Dinbili, danba ! gau eta goiza  
su eta keen artean  
sosegu eta deskantsu gabe  
geure buruen kaltean,  
horrexegatik lanak utzirik  
gatoz guztiok batean.

**4.**

Hiru babarrun jateagatik  
horrenbeste neke, pena,  
erdi ustelik aurkitzen dute  
forjariaren barrena,  
gure kontura egiten dute  
nagusiek nahi dutena  
gure lepotik gizentzen dute  
bete faltrikara dena.

**6.**

Ez badigute guri jornalik haunditzen  
berriro gu ez gara lanera bihurtzen  
arrazoiz gehiago badugu eskatzen  
ez gaituzte inola hoiek ikaritzen.  
Ez badigu ematen arrazoia guri,  
ez badigu ematen behar legez ongi  
su emango diogu geure fabrikari  
eta nagusiaren etxe guztiari.  
Ez badigu ematen arrazoia guri,  
ez badigu ematen behar legez ongi  
su emango diogu geure fabrikari  
eta nagusiaren etxe guztiari.

# FURRA FURRA

---

**Furra, furra, fandangoa,  
hortxe duzu fandangoa  
geure gustokoa.**

**1.**

Gaur goizean jeiki naiz  
suerte onean,  
tanke bat topatu dut  
neure kafesnean;  
ez dakit zer daukagun  
bake ala gerra  
bainannikbadaezpadan  
egin dut puzkerra.

**2.**

Zerbait egitekotan  
zuzen eta artez  
zorri bat garbitu dut  
ur pistola batez,  
orain galdurik nago  
beldurrez beteta  
muniziorik gabe  
gelditu naiz eta.

**3.**

Neure arma bakarra  
dut akordeoia,  
hauspoari eraginez  
dirudi leoia;  
eskua jaten badit  
on egin dezaion  
Cervantsei holakorik  
gertatu zitzaion.

**4.**

Eta orain banoa  
berriro ohera,  
bila ez badatozkit  
lolo egitera;  
bihar ikusiko da  
zer dagoen berri,  
jakintsuenak ere  
ezin du igerri.



## **GAZTE NIZ ETA ERE LORIOS**

---

Gazte niz eta ere lorios  
izpiritia kürius (bi)  
bat ez agrada, bestia jelos,  
mutil gaztekin gai oroz,  
mutil gaztekin gai oroz eta  
nula naiteke malerus.

Aita eta ama etzaten dira  
khanbera baten barnian (bi)  
ez dira nitaz hanitx ohartzen  
berak untsa direnian  
jesloskeriarik ez izaiteko  
ni maitiaren aldian.

Ate xokhuan makila eta  
leiho azpian zürübik (bi)  
ene maitia hantik sartzen da  
segeretian, prüdenki,  
segeretian, prüdenki eta  
amak oraino ez daki.

## GAZTERI BERRIA

---

Aita, zer egin duzu gure lur maitia?  
Kanpokoari saldu, oi dohakebea!  
Arrotzez betea da Euzkadi guzia,  
eskualduna etxean ez dago nausia.

### **Gu gira Euzkadiko gazteri berria, Euzkadi bakarra da gure aberria... (bi)**

Aita, zer egin duzu eskuara maitea?  
Erderan hazi duzu oi zure semea.  
Ontasun ederrena aita batek galtzea,  
bihotzean sartua dugu ahalgea.

### **Gu gira Euzkadiko... (bi)**

Kaskoin edo maketo ez dugu etsaia,  
bainan eskual semea da gure anaia.  
Hemen dela España, han dela Frantzia,  
mugaren bi aldetan da Eskula-Herria.

### **Gu gira Euzkadiko... (bi)**

Jaungoikoak emana hor dugu herria,  
bere semek hiltzera zergatik utzia...  
Bat egin behar dugu Euzkadi guzia,  
bildu gaiten, anaiak, gure da bizia!

### **Gu gira Euzkadiko... (bi)**

## GOIZIAN ARGI HASTIAN

---

Goizian argi hastian,  
ene leiho-hegian  
xori bat pausatzen da eta  
goratik hasten kantan.  
Xori eijerra, hain alegera  
entzüten haidanian  
ene bihotzeko tristüra  
laister düak aidian. (bi)

Ene xoririk maitena,  
zertan jin hiz nigana  
iratzarrazi nialarik  
ametsik eijerrena?  
Jinik hain goizik uste hiena  
banüala hanitx pena?  
Ez, ez habil kontsolatzera  
malerüsago dena. (bi)

Hitzak, musika: Pierres Bordazar "Etxahun-Iruri" / Abeslaria: Benito Lertxundi "Zuberoa eta Askatasunaren semeel" (1977) / Txomin Artola & Amaia Zubiria "Folk-lore sorta-1" (1991)

## GOIZIAN GOIZIK

---

Goizian goiz jeikirik, argia gaberik,  
urera joan ninduzun pegarra harturik.

Jaun txapeldun gazte bat jin zautan ondotik,  
heia nahi nuenez urera lagunik.

Nik ez nuela nahi urera lagunik,  
aita beha zagola salako leihotik.

Aita beha zagola, ezetz errangatik,  
pegarra joan zerautan besotik harturik.

Urera ginenian, biak buruz buru,  
galdegin zautan ere: -"Zonbat urthe tuzu?"

-"Hamasei... hamazazpi orain'ez konplitu,  
zurekin ezkontzeko gaztexegi nuzu.

Ettxerat itzultzeko nik dutan beldurra,  
ez jakin nola pentsa amari gezurra."

-"Neska, nahi duzu nik erakuts zuri  
ettxerat etortzean zer erran amari?  
Urzo zuri pollit bat, gabaz dabillana,  
hark ura zikindurik, egotu naiz ama".

-"Daigunaz geroztik zer erran amari,  
dugun pegarra pausa, gaitezen liberti."

Herri kanta / Abeslaria: Imanol "Erromantzeak" (1984) / Benito Lertxundi "Pazko gaiardi ondua"  
(1989) / Txomin Artola & Amaia Zubiria "Folk-lore sorta-2" (1992)

## GOIZUETAN (Trabuko)

---

Goizuetan bada gizon bat  
deritzen zaio Trabuko;  
hitzak ederrak, bihotza paltso,  
sekula ez zaio faltako:  
egin dituan dilijentziak  
berari zaizko damuko.

Ongi, ongi oroitua hadi  
zer egin huen Elaman;  
difuntu horrek izatu balu  
jarraikilerik Lesakan  
orain baino lehen egongo hintzan  
ni orain nagoen atakan.

Nere andreak ekarri zuen  
Aranaztikan dotea;  
hobe zukean ikusi ez balu  
Bedabioko atea;  
orain ez zuen idukiko  
dadukan pesalonbrea.

Nere buruaz ez naiz oroitzen,  
zeren ez naizen bakarra;  
hartzizekoak hor uzten ditut  
bi seme eta hiru alaba;  
Jaun zerukoak adi dezala  
hoien amaren negarra.

## **GORA TA GORA BETI**

---

### **Gora ta gora beti, haik gora Lapurdi! Euskarak bizi gaitu eta bizi bedi. (bi)**

Gorantza doa agudo kapitala  
eta Lapurdi beti dago apala,  
aldrebesturik dago mundu zitala.  
Konformatzen ez bagara  
ze pekatu mortala!

Gurea ez da bizi-modu normala,  
lurra lantzeko aitzurra eta pala,  
lanaren truke kobratzen erreala.  
Benetan da miserable  
euskaldunon jornala!

Munduan ezin bizi diteke hala,  
merkatuetan dena gora doala,  
etxera eta zopa guztiz argala,  
kriseiluen olioia  
ez da postre formala.

Obrero eta nekazari leiala,  
zuena ez da errenta liberala.  
Diru zikinak putre motzak bezala  
botatzen ditu gainera  
hortxe bere itzala.

Jabeek dute kontzientzi zabala,  
kakaztu dute gure lurren azala,  
baina Lapurdi ez da hain zerbitzala;  
borroka garbian dago.  
Hori da printzipala.

## **GORBEIAKO LARRAN**

---

Gorbeiako larran  
aker bat dago erdian,  
atso herrenak dabilz  
bere aurrean dantzan. (bi)

Goazen, goazen, goazen  
eurari laguntzen,  
mendi ta arkaitz artean  
ujuju! egiten. (bi)

Tralarala lara lara  
tralarala lara lara  
tralaralara tralaralara  
tralarala lara  
tralarala lara lara  
tralara lara lara  
tralaralara tralaralara  
tralarala lara. (bi)

Uju! Uju! Uju!

## **GREZIAKO ITSASONTZIA**

---

Itsaso gaindik ikusten baduzu  
gure gogoa daraman ontzia  
ez (e)zazu pentsa galtzera doanik  
argitzen baitu goizeko eguzkiak.

Hainbeste amets, negar ta desio  
ez du ekaitzak hondora botako,  
salbatuko da goizeko ontzia  
kaiaren bila hegaka joateko.

Arraun berriek eramango dute  
bide zaharretik Askatasunera,  
oihal zuriek haizea bildurik  
gure arnasa biltzen den batera.

Ez du ekaitzak hondora botako,  
salbatuko da goizeko ontzia.



## **GUK, EUSKARAZ**

---

### **Guk, euskaraz; zuk, zergatik ez? (bi)**

Euskara putzu sakon  
eta ilun bat zen (bi)  
eta zuek denok  
ur gazi bat  
atera zenuten  
handik nekez. (bi)

### **Guk, euskaraz; zuk, zergatik ez? (bi)**

Orain zuen birtutez,  
zuen indarrez (bi)  
euskara itsaso urdin  
eta zabal  
bat izanen da  
eta guria da. (bi)

### **Guk, euskaraz; zuk, zergatik ez? (bi)**

## GURETZAT

---

**Guretzat berdin dira  
astea eta jaia,  
lana bihurtzen dugu  
kantatzeko gaia.  
Har ditzagun eskuan  
giltza eta laia,  
gariz eta burdinaz  
lantzeko Bizkaia.**

Gitarrarekin aire berri bat  
daramagu kantuz egun,  
abesti libre eta leiala,  
prestu eta noblezadun;  
haren medioa zer garen, ongi  
izan gaitezen ezagun,  
herri langile nekazaria  
hala defendi dezagun. (bi)

Gure gogoia ez bedi arren  
kantu honekin akaba,  
gure ekintza izan dadila  
gure hitzaren alaba.  
Egun batean esan dezagun  
ez "hala biz" bai "hala da",  
nekea eta lana dirade  
zorionaren alaba. (bi)

Bide honetan baldin bagoaz,  
jakin dezagun zergatik,  
zin egin behar dugu zintzoki,  
bakoitzak duenagatik;  
sinestedunek dudarik gabe  
bere Jaungoikoagatik  
eta sineste gabeek berriz  
bere ohoreagatik. (bi)

Hitzak: Gabriel Aresti / Musika: Herrikoa / Abeslaria: Oskorri "Gabriel Arestiren oroimenez" (1976)

## HABANERA

---

Berriro itzuliko balitz iragan denbora arrotza  
berdin kontsumi nezake vainilla gozo artean,  
itsaso urrun batean irudimena galdurik  
udaberriko euritan larrosak pizten ikusiz...  
Osaba komertzianterik ez nuen izan Habanan,  
pianorik ez zegoen bizi nintzen etxe hartan,  
neskatxen puntilla finak udako arratsaldetan,  
errosario santua neguko gela hotzetan.

Ezpainek gordetzen dute ezpain bustien gustoa  
desiozko hotzikaran etsipenaren tamalez,  
gauak zelatan dakusa kontzientzia bilutsik  
badoaz ordu geldiak gogorapenen hegalez.  
Jaio ginen, bizi gera, ez dugu ezer eskatzen,  
itsasontzia astiro kaiatik ari da urruntzen,  
Antillak zintzilik daude argazkien paretetan,  
karta bat idatziko dut norbaitek erantzun dezan.

Tabako, ron ta kanelaz sukartutako ametsetan  
algarak entzuten ziren Habanako putetxetan,  
abanikodun mulatak gauari haize egiten,  
musiken aide nagiek odola erretzen zuten.  
Jaio ginen, bizi gera, ez dugu ezer eskatzen,  
itsasontzia astiro kaiatik ari da urruntzen,  
Antillak zintzilik daude argazkien paretetan,  
karta bat idatziko dut norbaitek erantzun dezan. (bi)

Hitzak, musika: Xabier Lete / Abeslaria: Xabier Lete "Eskaintza" (1991)

# HAIKA MUTIL

---

**1.**

"Haika mutil, jeiki hadi argia den mira hadi."  
- Bai, nausia, argia da,  
gur oilarra kanpoan da.

**3.**

"Haika mutil, jeiki hadi surik baden mira hadi."  
- Bai, nausia, sua bada,  
gur gatoa beroa da.

**5.**

"Haika mutil, jeiki hadi kanpoan zer den mira hadi."  
- Bai, nausia, edurra da,  
lurra xuriz estali da.

**7.**

"Haika mutil, jeiki hadi zer oinon den mira hadi."  
- Bai, nausia, egia da,  
mutiltto hau unatu da.

**2.**

"Haika mutil, jeiki hadi uria den mira hadi."  
- Bai, nausia, uria da,  
gure orra bustia da.

**4.**

"Haika mutil, jeiki hadi hortxe zer den mira hadi."  
- Bai, nausia, haizea da,  
gur lehioa ideki da.

**6.**

"Haika mutil, jeiki hadi urean zer den mira hadi."  
- Bai, nausia, ardia da,  
aspaldian itoa da.

Hitzak: Herri kanta / Musika: Mikel Laboa / Abeslaria: Mikel Laboa "Bat-Hiru" (1974)

## HAURTXO POLITA

---

Haurtxo polita sehaskan dago,  
zapi xuritan txit bero! (bi)  
Amonak dio: "Ene potxolo,  
arren egin ba lo!" (bi)

Txakur haundia etorriko da  
zuk ez ba duzu egiten lo; (bi)  
horregatik, ba, ene potxolo,  
agin agudo lo!" (bi)

Lo, lo, lo!

## **HERRIBEHERA JOTA**

---

Herribehera, Herribehera,  
zure landen zabalera  
ortzi-muga den hartan  
mugatzen da.

Zure lur emankorretan  
isurtzen diren asmoak  
gogotsu hartuko ahal ditu  
lur gozoak.

Zure gaztelu zaharrek  
gorderik duten antzina  
hats tristetan mintzo da  
haren mina.

Horma zahar arraituetan  
txoriak dira kantatzen  
mendetako lo geldia  
salatzen.

Nafarra, anai zaharra,  
kondairaren lehen sustarra,  
bego higan arbasoen  
amets hura.

## HERRIKO FESTAK

---

Herriko festak ziren biharamonian,  
berak nahi zuten txoko, txoko batian,  
harri txabal-txabal baten gainian  
ari ziran, ari ziran trukian.

Lau atso: hiru neskazahar,  
bat alarguna, jarririk itzalian  
harri txabal-txabal baten gainian  
ari ziran, ari ziran trukian.

Hasi ziradenian kartak partitzen  
eta gainera tantuak kontatzen.  
Trun jota, ta Iñaxik txota,  
Mariak xaldun, Errufiñak hirua,  
"Mari Martin, txoratu al zain burua?  
lauarekin hiruaren keinua!"

"Neska, egon hadi ixil-ixilik,  
hik ez denikusi nire keinurik!  
tanta bat edanez gero  
begiak dir-dir, ezin egon ixilik  
edan ezan, edan ezan gogotik  
katilua, katilua beterik."

## **HESOLA (Agure zaharra)**

---

Agure zahar batek zion bere etxe ondoan  
goizean goiz lantegira irteten nintzanean:  
Ez al dek, gazte, ikusten gure hesola zein dan,  
desegiten ez badugu bertan galduko gera.

**Baina guztiok batera  
saiatu hura botatzera  
usteltzen hasia dago ta  
laster eroriko da.**

**Hik bultza gogor hortikan,  
ta bultza nik hemendikan,  
ikusiko dek nola, nola  
laster eroriko dan.**

Baina denbora badoa, nekea zaigu hazi,  
eskuak zahartatu zaizkit eta indarrak utzi,  
usteltzen badago ere karga badu oraindik,  
berriz arnasa hartzeko esagun elkarrekin.

**Baina guztiok batera...**

Agure zaharra falta da bere etxe ondotik,  
haize txar batek hartuta eraman du hemendik,  
haur batzuk ikusten ditut eta inguraturik  
aitona zaharraren kanta nahi diet erakutsi.

**Baina guztiok batera...**



## IKUSI MENDIZALEAK

---

Ikusi mendizaleak  
baso eta zelaiak  
mendi tontor gainera  
igo behar dugu  
ez nekeak, ez ta bide txarrak,  
gora, gora neska-mutilak!  
Gu euskaldunak gara  
Euskalerrikoak! (bi)

Hemen mendi tontorrean  
euskal lurren artean  
begiak zabaldurik,  
bihotza erreta.  
Hain ederra ta hain polita da ta  
gora, gora Euskalerrria!  
Gu euskaldunak gara  
Euskalerrikoak! (bi)

Hitzak eta musika: Sabin Gereño / Abeslaria: Argoitia neba-arrebak "Iruñe ta Andoni Argoitia" (1968) / Oskorri "The pub ibiltaria 1" (1997)

## ILUNTZEAN

---

Ilargia uretan murgildu da  
itsas arrain txikien ondora  
uraren hozkirriaren zirrara  
hondar epelaren alboan.

Iluntzean uraren ertzean  
errainu baten argia,  
ene maite, biok jolasean  
olatu zipriztin artean.

Haizeak zimurtu du itsasoa,  
kresalak lehortu malkoa,  
maite, zure zain hementxe naukazu  
izar goiztarrei begira.

Iluntzean uraren ertzean  
errainu baten argia,  
ene maite, biok jolasean  
olatu zipriztin artean.

## ITSASOAN URAK HAUNDI

---

Zazpi senideko famili batetan  
arotza zen gure aita  
gure herriko alkate ez izan arren  
lan egiten zuena.

**Itsason urak haundi dire  
murgildu nahi dutenentzat.  
Gure herriko lanak haundi dire,  
astun dire,  
gogor dire,  
zatiturik daudenentzat.**

Markatzen ari diren bide nabarra  
ez da izango guretzat  
lehengo sokari ezarririk dagoen  
oztopo bat besterik.

**Itsason urak haundi dire...**

Hainbeste mendetako gure morrontzak  
baditu mila tankera,  
eta zuhur aukeratzen ez badugu  
bertan galduko gera.

**Itsason urak haundi dire...**

Hitzak eta musika: Julen Lekuona / Abeslaria: Xabier Lete "Kantatzera noazu"(1976)

# ITSASONTZI BATEN

---

## **Itsasontzi baten Euskal Herritik kanpora naramate eta ez dakit nora. (bi)**

Agur nere ama  
laztan goxoari,  
agur nere maite politari.  
Ez egin negar,  
etorriko naiz  
egunen baten  
pozez kantari.

### **Itsasontzi baten...**

Agur senideak,  
agur lagunari,  
agur Euskal Herri osoari.  
Ez egin negar,  
etorriko naiz  
egunen baten  
pozez kantari.

Gora Euskal Herri.  
Gora Euskal Herri.  
Gora Euskal Herriari.

Hitzak, musika: Kaxiano / Abeslaria: Kaxiano "Itsasontzi baten" (1986)

## ITURINGO AROTZA

---

Ituringo arotza, Erramun Joakin,  
haserre omen zaude zeren dugun jakin  
santurik ez laiteke fidatu zurekin  
San Kristobal urtuta joaliak egin.

Arotzak erran dio bere andreari:  
-“Urtu behar dinagu, ekarran santu hori”  
-“Gizona, nora zoaz? Bekatu da hori!”  
-“Ez zionagu erranen sekula nihori”

Iturengo garaile, Ramuntxo Joakin,  
haserre omen zira zeren dudan jakin.  
Konfesa zaitez ongi erretorarekin,  
ez dute zer fidatu santuek zurekin.

Kobrezko santurikan inon bazarete  
egoten ahal zarete hemendik aparte,  
baldin arotz horiek jakiten badute  
joaliak egiteko urtuko zaituzte.

## IZOTZ-ONDOKO EGUZKI

---

Izotz-ondoko eguzki, neguaren parre:  
olerkariak noizpait hiri goratarre.  
Emeki duk itxaroz piztu garai-larre:  
udaberri-lamiak larreon batzarre (bis)

Behetik nator, ibarrak izoztuta utziaz,  
mendia jaiez dago urrezko jantziaz.  
Haren parrea dadat irrika biziaz,  
gozatua baitu gaur ezti bereziaz (bis)

Udalenak irria oi du zoro ozena;  
udak, haragikoia; udazkenak, bena;  
negu-gau oskarbien izotz-ondorena  
berriz, bakarra duzu: denetan emeena! (bis)

Bai baitatza eria ogean: herio  
atzapar itsusia luzatzen ario  
berbizkunde berria maiteak jario:  
Hitzik ezin (e)ta irria hain ezti dagio! (bis)

Izotzak estali zuen gure Euskal Herria;  
mintzo ozenak zabaldu berbizkun-berria.  
Itzal-zokondoetan lore, izotz-bitxia;  
baña gañetaz ari jauntzen eguzkia (bis)

## JAUN BARUAK

---

Jaun baruak aspaldin  
xederak hedatü zütin, (bi)  
xori eijer bat hatzaman düzü  
Paubeko seroren komentin, (bi)  
orai harekin biziren dizü  
aspaldian gogun beitzin. (bi)

Xedera balitz halako  
merkatietan saltzeko, (bi)  
Ziberuako aitunen semek  
eros litzazkie oro, (bi)  
halako xori eijerto  
zunbaiten hatzamaiteko. (bi)

Igaran apirilaren bürian,  
armadaren erdian, (bi)  
züntüdan bihotzian,  
armak oro eskian; (bi)  
present espiritian,  
manka besuen artian. (bi)

Jauna, maite banaizü  
erraiten düzün bezala, (bi)  
kita ezazü, kita ezazü,  
erregeren zerbütüa, (bi)  
**eta maita herria**  
**üken dezadan plazera, (bi) (bi)**

Hitzak, musika: Zuberoako herri kanta / Abeslaria: Benito Lertxundi  
"...eta maita herria, ükan dezadan plazera" (1975)

## **JOHN ZAHARRA**

---

**Etixerako ordua  
iritsi zaigu, John zaharra,  
kanta zagon azkena  
alaitzeko gure bidea.**

Zenbat kanta eta hitz  
laguna lagun truke  
biharko ere zerbait  
utzi beharko genuke.

**Etixerako ordua...**

Gure emaztetxoak  
lo harturik leudeke  
ai zer gau goxoa  
ezkonduta bageundeke.

**Etixerako ordua...**

Ez zaitetz hasi orain  
maitasunaren eske  
ilargiaren lagun  
zeruraino joan gintezke.

**Etixerako ordua...**

Hitzak: Pako Aristi / Musika: Irlandako herri kanta (Mo ghile mear)  
Abeslaria: Mikel Markez "Erabil nazazu" (2004)



## **JOSE MIGEL**

---

## **IXIL-IXILIK**

---

## **BAT,BAT,BAT**

---

## **ANTERON**

---

## **KALIAN GORA**

---

## **HAU DEK**

---

Joxe Migel,  
Migel Joxe,  
Joxe Migel,  
Migel Joxeren batela,  
Joxe Migelen batela,  
Txitxarroa ta berdela,  
Joxe Migelen batela,  
Txitxarroa ta berdela.  
Joxe Migel,  
Migel Joxe,  
Joxe Migel,  
Migel Joxeren batela,

---

Ixil-ixilik dago,  
kaia barrenian  
untzi xuri polit bat  
uraren gainean. (bi)  
Goizeko ordu bietan  
esnatutzen gira  
arrantzaliarekin  
joateko urrutira.  
Pasatzen nintzanean  
zure leihopetik  
negarrak irteten  
dit begi bietatik (bis)  
Zergaitik (5 aldiz)  
negar egin?  
Zeruan izarrak dagoz  
itsaso aldetik. (bis)

Bat, bat, bat,  
bart parrandan ibili,  
bart parrandan ibili.  
Bi, bi, bi,  
ez naiz ondo ibili,  
ez naiz ondo ibili.  
Hiru, hiru, hiru,  
kolkua bete diru,  
kolkua bete diru.  
Lau, lau, lau  
sardina bakalau.

---

Anteron txamarrotia,  
Sinkarren bibotia  
Haretzek ei dauko,  
ei dauko,  
preso tximinoia.

---

Kalian gora,  
kalian behera,  
kalian gora zezena.  
ai, ai, ai, ai

---

Hau dek, hau dek,  
hau dek umoria  
Konsolatzeko,  
konsolatzeko  
euskaldun jendia.

## **KALERA, KALERA**

---

Altza begiak zapaldu orok,  
deiadarra lagunari,  
berriro izango gaituk kide  
indar emanaz iraultzari.

**Kalera, kalera,  
borrokalari kalera. (bi)  
Hire indarraren beharra diagu  
gure indarrarekin batera. (bi)  
Zai dago ama, zai aita,  
zai andre ta lagunak.  
Hator, hator Euskadira,  
hator, hator etxera. (bi)**

Ezin gure oihuak isildu,  
ezin gaituzte zapaldu,  
lagunak non diren badakigu,  
oihuka herria daukagu.

**Kalera, kalera,...**

Bultza ta bultza euskal langile,  
euskal populu sufritua,  
burnikateak erre labetan,  
danba-danba lurrera kartzelak.

**Kalera, kalera,...**

Luza eskuak indarrrik baduk,  
jaikitzeke garaia da;  
herri guztia zuen zai dago  
denok eskuz esku helduta.

Hitzak: Josu Txapartegi "Txapas" / Musika: Imanol Urbietta

## KATALINTXU

---

**Katalintxu, lora ederra,  
zeu krabelina fina,  
antzina egin jatan  
zeuganako mina.**

Zeuganako min hori  
pentsatu ezkerero,  
ezin dot lorik egin  
ametsetan baino.

**Katalintxu, lora ederra,...**

Amuak bota ditu  
ura barrenian  
arrankaiak koixteko  
eria danian.  
Arrankaia juan da  
Bilboko urira,  
German geratu da  
zerura begira.

**Katalintxu, lora ederra... (bi)**

Zeuganako min hori  
pentsatu ezkerero,  
ezin dot lorik egin  
ametsetan baino.

**Katalintxu, lora ederra...**

Arabako herri kanta / Abeslaria: Gorka Knörr "Txalaparta" (1976)  
Oskorri "The pub ibiltaria 6" (2002)

# KATTALIN

---

Etxe txiki txukun baten  
zure aitetamekin  
zinen bizi, zintzo bizi  
ene maite Kattalin.

**Ene maite, ene maite,  
ene maite Kattalin,  
sekulako ta betiko  
galdu zaitut Kattalin.**

Baina eder zinen zinez  
zine-izar bat bezin,  
ile gorri (baita zorri)  
zuk ba zenun Kattalin.

**Ene maite...**

Ibaiera zinen joaten  
zure ahate beltzekin,  
goiz batean, bat batean,  
ito zinen Kattalin.

**Ene maite...**

Hilerrian bada lore  
euzki lili, krabelin  
zu zaituzte ba dut uste  
ongarritzat Kattalin.

**Ene maite... (bi)**

Hitzak: Jon Mirande / Musika: Herrikoa / Abeslaria: Oskorri "Hau hermosurie!" (1984)

# KOBLAKARI

---

Zilar ezpata idüri oihanian goizanko ekhia,  
bardin gure artin sartzen poeten begia,  
bihotzian egiten dizü ezin elkizko zauria  
irustazün itürria.

**Koblakari, koblakari,  
denek zure bihotzian nahi;  
koblakari, koblakari,  
zütaz gütüzü egharri.**

Ama, deitzen den bezala, korpütza hozten senditzian,  
zure berotarzünila jin nüzü bizitzian,  
bizientako amodiuz zük bihotza gainditzian,  
sü hartzen deikü güzia.

**Koblakari, koblakari...**

Orhi mendi bera düzü Hiru Erregeen aitzinian,  
lotsa gabe txütik zira Frantzi eta Spainian,  
zure lana hegaltatürrik betikotz zerü lürrian,  
Eskual Herri güzian.

**Koblakari, koblakari...**

Bizi denboran beitzüan aterbüa etxe batetan,  
hilik ere poeta bizi anitzetan,  
heriotza lotsagarriak kentzen badü izaitia,  
ez dateke zure kasüa.

**Koblakari, koblakari...**

Hitzak: Beñat Sarasola / Musika: Pier Paul Berzaitz / Abeslaria: Pier Paul Berzaitz "Baratze bat" (2000)

## KOLDOBIKE

---

Kai aldeko hegal baten  
abesti hau entzun neban  
gazte bat zan, bermiotarra,  
maitea eban bere gogoan.

**Koldobike, neure maite,  
zu zaitut zorionen ate,  
atseginez nauzu bete,  
gau honetan niganatu zait.**

Abots eder ta itunaz,  
maiteari deika egoan  
barrua ilun eta bakar,  
izarrik ez zan haren zeruan.

**Koldobike, neure maite...**

Etxe barik, inor barik,  
hemen nauzu gaur bakarrik  
nireok hor ez dot pozik,  
ez dago inon Bermiolakorik.

**Koldobike, neure maite,  
zu zaitut zorionen ate,  
atseginez nauzu bete,  
gau honetan niganatu zait. (hiru)**

**Ene maite... (bi)**

## KONTRAPAS

---

Garaziko herria  
benedika dadila, (bi)  
euskarari eman dio  
behar duen tornua. (bi)  
Euskara, euskara, jalgi hadi plazara! (bi)

Bertze jendek uste zuten  
ezin eskriba zaiteien (bi)  
orai dute porogatu  
enganatu zirela. (bi)  
Euskara, euskara, jalgi hadi kanpora! (bi)

Bertzeak oro izan dira  
bere goien gradora (bi)  
orain hura iganen da  
bertze ororen gainera. (bi)  
Euskara, euskara jalgi hadi dantzara! (bi)

Oraindano egon bahaiz  
inprimitu gaberik (bi)  
hi engoiti ebiliren  
mundu guzietarik. (bi)  
Euskara, euskara, jalgi hadi kanpora!  
Euskara, euskara, jalgi hadi plazara!  
Euskara, euskara, jalgi hadi dantzara!  
Euskara, euskara, habil mundu guztira!

Hitzak: Mosen Bernat Etxepare "Linguae baskonum primitiae" (1545)  
Musika: Xabier Lete / Abeslaria: Xabier Lete (1974)

## **LAU HAIZETARA**

---

Itsasondoko haize gezala  
Marinelen bertsoa  
Zoaz urruti aidean  
Lau haizetara (tris)  
Donostiatik Iruñera.

Uzta garaiko gari usaia  
Segarien bertsoa  
Zoaz urruti aidean  
Lau haizetara (tris)  
Iruñetikan Baionara

Ezpain erien portu galdua  
Maitarien bertsoa  
Zoaz urruti aidean  
Lau haizetara (tris)  
Baionatik Vitoriara

Muga zaharrak mahastietan  
Gaiteroen bertsoa  
Zoaz urruti aidean  
Lau haizetara (tris)  
Vitoriatik Bilbaora

Burnizko bihotz arrailduna  
Gabetuen bertsoa  
Zoaz urruti aidea  
Lau haizetara (tris)  
Bilbaotik Euskal Herrira

Hitzak: M. Arregi / Musika: Imanol / Abeslaria: Imanol "Joan etorrian" (1988)



## LAU TEILATU

---

Hemen gaude  
eta poztutzen naiz,  
ziur zure aita ere bai.  
Zer ondo!  
zelan dijoa zure bufanda txuria.

**Lau teilatu gainean  
ilargia erdian eta  
zu goruntz begira  
zure kea eskuetan  
putzara batekin putz!  
neregana etorriko da  
ta berriz izango gara  
zoriontsu  
edozein herriko jaietan.**

Goxo goxo  
kanta egin nazu  
Benitoren "Maria Solt"  
Ez negarrik egin  
txuri zaude eta malkoak  
zure kolorea kentzen dute.

**Lau teilatu gainean...**

Felix-felix bihar  
berriz izango gara  
txanpain apur batekin.  
Diru gabe baina  
izarrak gurekin daude  
piano baten soinuaz.

**Lau teilatu gainean...**

Hitzak eta musika: Juan Carlos Perez / Abeslaria: Itoiz "Itoiz" (1978)

## LEPOAN HARTU TA SEGI AURRERA

---

Trailara, trailara  
la-la-ra la-la-la-ra  
Lepoan hartu ta segi aurrera!  
Lepoan hartu ta segi aurrera!

Gazte bat lurrean aurkitu dugu  
lore gorriz beterik kolkoa...  
burdinen artetik ihesi dator  
euskal gazteriaren oihua!  
Mutilak, eskuak elkar gurutza!  
ekin ta bultza denok batera!  
Bidean anaia erortzen bazaik,  
lepoan hartu ta segi aurrera!

Trailara, trailara  
la-la-ra la-la-la-ra  
Lepoan hartu ta segi aurrera!  
Lepoan hartu ta segi aurrera!

Ez dugu beldurrik,  
ez dugu lotsarik  
nor geran,  
zer geran  
aitortzeko!

Ez gaituk lapurrak,  
ez eta zakurrak  
kataiaz loturik ibiltzeko!  
Gizonak bagera,  
jo zangun aurrera,  
gure herriaren jabe egin arte!  
Askatasunaren hegal azpian  
kabia egiten ohituak gare!  
Ibiltzen aspaldi ikasia dugu,  
otsoak eskutik hartu gabe!

Trailara, trailara  
la-la-ra la-la-la-ra  
Lepoan hartu ta segi aurrera!  
Lepoan hartu ta segi aurrera!

Arrotzek ezpataz hil nahi ba naute  
izituko gaituztelakoan,  
zutitu ta euskeraz mintzatuko naiz  
nere hiltzailearen aurrean!  
Mutilak, ez gero nigarririk egin  
erortzen banaiz gau ilunean,  
izar berri bat piztutzeroa noa  
Euskal Herriko zero gainean...

## LORETXOA

---

Mendian larrartean  
aurkitzen da loretxoa,  
aurrean umetxo bat  
loretxoari begira.

Loreak esan nahi dio  
-“umetxo, aska nazazu!,  
jaio naiz libre izateko  
ta ez loturik egoteko”-.

Umetxoak ikusirik  
lorea ezin bizirik,  
arantzak kendu nahi dizkio,  
bizi berri bat eman.

Orduan izango baitu  
indarra eta kemena,  
orduan emango baitu  
ugari bere fruitua.

Hitzak, musika: Benito Lertxundi / Abeslaria: Benito Lertxundi “Egia” (1967) / Exkixu  
“Euskal Herriak izan behar du euskalduna eta libre!” (1996)

## LORIAK UDAN (Izazu nitaz kupida)

---

**1.**

Loriak udan ihintza bezela  
maite det dama gazte bat,  
hari hainbeste nahi diodanik  
ez da munduan beste bat;  
inoiz edo behin pasatzen badet  
ikus gabe aste bat,  
bihotz guztira banatutzen zait  
halako gauza triste bat.

**3.**

Ez al didazu antzik ematen  
nik zaitudala nahiago,  
ai, marinela gau ilunean  
izarra baino gehiago?  
Nere ondoan zauzkadalako  
pozez zoraturik nago;  
zu ikusteak alegratu nau,  
triste nengoen lehenago.

**2.**

Neskatxa gazte, paregabea,  
apirileko arrosa,  
izarra bezin dizdizaria,  
txoria bezin airoa;  
oraintxen baino gusto gehiago  
nik ezin nezakeen goza;  
zorian ikusten zaitut,  
nere bihotzak, hau poza!

**4.**

Nere betiko pentsamendua  
nere kontsolagarria,  
zu gabetanik ezin bizi naiz,  
esaten dizut egia;  
zu bazinake arbola eta  
ni baldin banintz txoria,  
nik zu zinakeen arbola hartantxe  
egingo nuke kabia.

## MAITE, MAITE

---

**Maite, maite,  
ez neri utzi hemen kaiean.  
Maite, maite,  
zu nire bihotzean.**

Maitetxo itsasora juan da  
itsasontzi batean.  
Maitetxo itsasoan dago  
urrutirako bidean.

**Maite, maite,  
ez neri utzi hemen kaiean.  
Maite, maite,  
zu nire bihotzean.**

Maitetxo noiz etorriko da,  
nere bihotza zain dago.  
Maitetxo noiz etorriko da,  
gu biok alkar bizitzeko.

**Maite, maite,  
ez neri utzi hemen kaiean.  
Maite, maite,  
zu nire bihotzean. (bi)**

Musika: Eskoziako herri kanta (Bring back my bonny to me)  
Abeslaria: Iruñe ta Andoni Argoitia (1968)

## MAITE ZAITUT

---

Koloretako ametsak  
esna nagoenean  
eta ezin loak hartu  
gaua iristen denean.  
Saltoka hasita hegan  
egiteko gogoa,  
nire bihotza taupaka  
aire ertzera doa.

Elkarrekin hankaz gora  
buruz behera jartzean,  
tunelean sartu eta  
irrintzika hastean,  
bitxiloreekin pultsera  
egin dizudanean,  
begietara begira  
hauxe nahi dizut esan:

**Maite zaitut,  
maite- maite zaitut;  
pila, pila, pila patata tortilla!  
Maite zaitut.  
Maite-maite zaitut,  
ilargiraino eta buelta  
maite zaitut**

Begietako dirdira,  
irribarrea ahoan,  
ezin ditut ezkutatu  
zu ikusterakoan;  
hanka eta eskuetan,  
gorputzean, dardara;  
nire bihotza taupaka  
aire ertzera doa.

Elkarrekin ortzadarra  
margotu dugunean,  
ispiluan nire izena  
idatzi duzunean,  
irratia piztu eta  
doinu hau entzutean,  
begietara begira  
hauxe nahi dizut esan:

**Maite zaitut,  
maite-maite zaitut;  
pila, pila, pila patata tortilla!  
Maite zaitut.  
Maite-maite zaitut,  
ilargiraino eta buelta  
maite zaitut**

Hitzak: Garikoitz Aranzabal, Mertxe Rodriguez, Pirritx, Porrotx / Musika:  
Xabier Zabala / Abeslaria: Pirritx eta Porrotx "Maite zaitut" (2005)

## MAITIA, NUN ZIRA?

---

### 1.

-“Maitia, nun zira?  
Nik etzütüt ikusten  
ez berririk jakiten  
nurat galdü zira? (bi)  
Ala khanbiatü da zure deseña?  
Hitzeman zenereitan  
ez behin, bai berritan  
enia zinela!” (bi)

### 3.

-“Aita jeloskorra!  
Zük alaba igorri  
arauz ene ihesi  
komentü hartara. (bi)  
Ar’eta ez ahal da sartüren serora!  
Fede bedera dügü  
alkarri eman tügü  
gauza segürra da.” (bi)

### 2.

-“Ohikua nüzü  
ez nüzü kanbiatü  
bihotzian beinin hartü  
eta zü maitatü. (bi)  
Aita jeloskor batek dizü kausatü.  
Zure ikustetik  
gehiago mintzatzetik  
hark nizü pribatü.” (bi)

### 4.

-“Zamariz iganik,  
Jin zazkit ikustera,  
Ene kontsolatzera,  
Aitaren ixilik. (bi)  
Hogei eta lau urthe batzitz betherik:  
Urthe baten bürrian,  
Nik ez diket ordian  
Aitaren axolik.” (bi)

### 5.

-“Alhaba diener  
erranen dit orori:  
So’gidaziet eni  
beha en’erraner; (bi)  
gaztetto direlarik untsa diziplina:  
handitü direnian,  
berant date ordian,  
nik badakit untsa.” (bi)

## **MAITIAK GALDE EGIN ZAUTAN**

---

Maitiak galde egin zautan pollita nintzanez,  
maitiak galde egin zautan pollita nintzanez,  
pollit, pollit nintzela baina  
larrua beltz, larrua beltz.

Maitiak galde egin zautan premu nintzanez,  
maitiak galde egin zautan premu nintzanez,  
premu, premu nintzela baina  
etxerik ez, etxerik ez.

Maitiak galde egin zautan moltsa banuenez,  
maitiak galde egin zautan moltsa banuenez,  
moltsa, moltsa banuela baina  
dirurik ez, dirurik ez.

Maitiak galde egin zautan lanean nakianez,  
maitiak galde egin zautan lanean nakianvez,  
lanean, lanean nakiela baina  
gogorik ez, gogorik ez.

Gaixoa, hil behar dugu guk biok gosez,  
gaixoa, hil behar dugu guk biok gosez,  
gosez, gosez hil behar baina  
elkar maitez, elkar maitez.



## MARIA SOLT ETA KASTERO

---

Maria Solt ta Kastero  
bi amoros zahar bero. (bi)  
Hirurogei-hamarna urtetan hartü die amorio  
Kastero jelostü gero Maria Solt ezari kanpo.

Maria Solta dua nigarrez  
izorra dela beldürrez.  
Barnets-Bordako anderiak kontsolatü dü elez  
emazte zaharrik oküpü agitzen eztela ez.

Maria Soltek arrapostü  
Santa Elisabet badüzü. (bi)  
Saintü zahar bateganik oküpü agitü düzü  
Kastero ere bada saintü, hala nizan beldür nüzü.

Kastero eztüzü saintü,  
sobera bürhaüti düzü.  
Elizalat joan eta taharnan egoiten düzü  
Kastero denagatik saintü Maria Solt antzü zira zü.

Hitzak, musika: Pierre Topet "Etxahun Barkoxe" / Abeslaria: Benito Lertxundi  
"...eta maita herria, üken dezadan plazera" (1975)

# MARIJAIA

---

Aste Nagusia, bakarra dago,  
hamar gauekoa munduan.  
Abuztuan Bilbon, danok kalera  
katuak eurek be jaietan!

Mari, Mari, Marijaia dator...  
Mari, Mari, Marijaia dator...  
Uger, uger, Bilboko uretan...  
Mari, Mari, Marijaia dator...

Abuztuan danok, zahar eta gazte,  
gizon eta andre, jaietan.  
Zapia lepoan, alkar hartuta,  
kolore guztiak, dantzetan.

Goxa ta erlojua, ez ei doaz batera,  
bata edo bestea, zoratu egin da.  
(bi)

Hara, hara, hara, hara nor datorren,  
hara, hara, hara gure Marijaia.  
Ene, ene, ene, oi, ai, ene bada,  
aste hau pasata barrero joango da.

**Marijaia bera, gure Marijaia,  
Bilbora etorri da, Aste Nagusira.  
(bi)**

Hara, hara, hara, hara nor datorren,  
hara, hara, hara gure Marijaia.

Ene, ene, ene, oi, ai, ene bada,  
aste hau pasata barrero joango da.

**Marijaia bera, gure Marijaia,  
Bilbora etorri da, Aste Nagusira.  
(bi)**

Aste Nagusi, bakarra munduan,  
bakarra munduan, Marijaia! (bi)

**Marijaia bera, gure Marijaia,  
Bilbora etorri da, Aste Nagusira.  
(lau)**

## MARITXU, NORA ZOAZ?

---

- (mutilek)* Maritxu nora zoaz eder galant hori?
- (neskek)* Iturrira, Bartolo, nahi baduzu etorri
- (mutilek)* Iturrian zer dago?
- (neskek)* Ardotxo xuria.
- (denok)* Biok edango dugu nahi duzun guztia.
- (mutilek)* Maritxu, zuregana biltzen naizenian, poza sentitzen dut nire barrenian.
- (neskek)* Bartolo, nik ere dut atsegin hartutzen ur bila noanean banauzu laguntzen.
- (mutilek)* Maritxu, lagunduko dizut gaur mendira ur fresko eder bila hango iturrira?
- (neskek)* Iturri eder hortan dagon ur garbia, Bartolo, alaituko dizkizu begiak.
- (mutilek)* Maritxu, nere aurrez ez jarri serio zuri dizudalako zenbait amodio.
- (neskek)* Irrifar gozokoa egiten baduzu bihotza atseginez betetzen dizadu.

# MARKOXEN TXARRIXE

---

**1.**

Markoxek egin eban  
lastozko zubixe  
bertatik pasatzeko  
bera ta txarrix  
pasatzen hasi ziren  
jausi zen zubixe  
Markoxek hartu eban  
kristoren ostixe.

**2.**

Errekatik urten zan  
goraino bustirik  
gainera zikatzeko  
ez zan eguzkirik  
egindakoarekin  
gutziz damuturik  
berriz ez dau egingo  
lastozko zubirik.

**3.**

Horrelaxe hil jako  
makina bat pizti  
baina aurrera doa  
euri zein eguzki  
Markoxi berdin jako  
busti zein ez busti  
errekan zehar doa  
txarri eta guzti.

**4.**

Erreka bazterrean  
guardarekin kezka,  
lizentzi barik egin  
ete dauen peska.  
Eskuak gora jasoz  
Markoxen protesta:  
Hau neure txarrix  
da, arrainkaixa ez da.

**5.**

Erreka pasa eban  
berak ozta ozta,  
gero guarda dala-ta  
txarri horrek ospa.  
Markox bere atzetik  
mekauendioska:  
"Erreka pasatzea  
ez jat gitxi kosta."

**6.**

Markoxen txarrix  
zan artoz hasikoa  
San Martinetarako  
berebizikoa.  
Berari alde eginda  
Hor igesi doa:  
Agur solomo eta  
urdaiazpikoa.

**7.**

Munduan ez zegoen  
holako piztirik,  
txarrix maite eban  
eta ez besterik,  
Pentsatzen dago hilda  
ala dan bizirik,  
txarrix topau ezin.  
Holako ostirik!

**8.**

Bere txarrixen bila  
behera eta gora,  
ihesi egin deutso  
ta ez daki nora.  
Horrenpentsamendua  
datorko gogora:  
Gatzunaskaren baten  
gordeta egongo da.

## MARTXA BATEN LEHEN NOTAK

---

Eguzkiak urtzen du goian  
gailurretako elurra,  
uharka da jausten ibarrera  
geldigaitza den oldarra.

Gure baitan datza eguzkia  
iluna eta izotza  
urratu dezakeen argia,  
urtuko duen bihotza.

Bihotza bezain bero, zabalik  
besoak eta eskuak,  
gorririk ikus dezagun egia,  
argiz beterik burua.

Batek gose diraueno  
ez gara gu asetuko,  
bat inon loturik deino  
ez gara libre izango.

Bakoitzak urraturik berea,  
denon artean geurea,  
etengabe gabiltza zabaltzen  
gizatasunari bidea.

Inon ez inor menpekorikan,  
nor bere burua'n jabe,  
herri guztiok bat eginikan  
ez gabiltz gerorik gabe.

Batek gose diraueno  
ez gara gu asetuko,  
bat inon loturik deino  
ez gara libre izango.

Eguzkiak urtzen du goian  
gailurretako elurra,  
uharka da jausten ibarrera  
geldigaitza den oldarra.

## MATALAZ

---

Dolü gabe, dolü gabe hiltzen niz  
bizia Xiberuarendako emaiten baitüt.

Agian, agian, egün batez  
jeikiko dira egiazko xiberutarrak,  
egiazko eskualdunak  
tirano arrotzen hiltzeko. (bi)

Agian, agian, egün batez  
jeikiko dira egiazko xiberutarrak,  
egiazko eskualdunak  
tirano arrotzen hiltzeko. (bi)

# MENDIAN GORA

---

## 1.

Mendian gora haritza,  
ahuntzak haitzean dabilta,  
itsasoaren arimak dakar  
ur gainean bitsa.  
Kantatu nahi dut bizitza  
usteltzen ez bazait hitza,  
mundua dantzan jarriko nuke  
Jainkoa banintza. (bi)

## 3.

Euskal Herriko poeta,  
kanposantuko tronpeta,  
hil kanpaiari tiraka eta  
hutsari kolpeka.  
Argitu ezak kopeta  
penak heuretzat gordeta  
goizero sortuz bizitza ere  
hortxe zegok eta. (bi)

## 2.

Euskal Herriko tristura,  
soineko beltzen joscura,  
txori negartiz bete da eta  
umorez ustu da.  
Emaidazue freskura,  
ura eskutik eskura,  
izarren salda urdina edandahortxe  
bizi naiz gustura. (bi)

## 4.

Mundua ez da beti jai,  
inoiz tristea ere bai,  
bainan badira mila motibo  
kantatzeko alai,  
bestela datozen penai  
ez diet surik bota nahi,  
ni hiltzen naize gauean behintzat  
eizue lo lasai. (bi)

# MUÑAGORRIREN BERTSOAK

---

**1.**

Muñagorrik diona  
bere proklamian,  
gerrak ondatzen gaitu  
bostgarren urtian;  
iaz jarrikan Carlos  
Madrilko bidian,  
bultza zuten atzera,  
gerra bere oñian.

**3.**

Carlos agertu ezker  
probintzi auetan,  
beti bizi gerade  
neke ta penetan.  
Naiz kendu guk deguna  
beinere ezer eman;  
Bost negar egiteko,  
nunbait jaio giñan.

**5.**

Kordoiz inguraturik  
kostatik Ebrora,  
trabaz gaude josirik  
bera eta gora.  
Atzenikan frantsesak  
itxi du frontera.  
Gerrak ez dakar onik  
Iñundik iñora..

**2.**

Agintari onenak  
preso daduzkate;  
euskalduna izatia  
du bakoitzak kalte.  
Tejeiro ta Maroto  
guzien alkate:  
Zer gizon oyetatik  
espera gentzake.

**4.**

Semiak soldadu ta  
preso gurasuak,  
ezin pagaturikan  
kontribuzyuak.  
Trintxera lanetara  
gainiera auzuak.  
Dolorezkoak dira  
gaur gure pausuak.

**6.**

Atiak itxi eta  
ogia garesti;  
artua ere ari da  
igotzen poliki;  
dirua ezkututzen da  
egunero emendik.  
Nola bizi garen bada,  
arritutzen naiz ni. (Bi)

Hitzak: Jose Antonio Muñagorri (1838) / Musika: Benito Lertxundi / Abeslaria: Benito Lertxundi  
"Altabizkar-Itzaltzuko bardoari" (1981)



## **NERE ETXEA (Ikusten duzu goizean)**

---

### **1.**

Ikusten duzu goizean  
argia hasten denean,  
menditto baten gainean,  
etxe ttipitto aintzin xuri bat,  
lau haitz ondoren erdian,  
xakur xuri bat atean,  
iturriño bat aldean  
han bizi naiz ni bakean.

### **3.**

Ez da lurrean gizonik,  
printzerik ez erregerik,  
ni baino hobeki denik.  
Badut andrea, badut semea,  
badut alaba ere nik.  
Osasun ona batetik,  
ondasun nahiko bestetik...  
Zer gehiago behar dut nik?

### **5.**

Etxean ditut nereak,  
akuillu, haitzur, goldeak,  
uztari eta hedeak.  
Igazko ale ditut oraindik,  
txoko guztiak beteak.  
Nola igaro urteak  
ematen badu besteak,  
ez gaitu hilen goseak.

### **2.**

Nahiz ez den gaztelua,  
maite dut nik sorlekua,  
aiten aitek hautatua.  
Etxetik kanpo zait iduritzen  
nunbait naizela galdua.  
Nola han bainaiz sortua,  
han utziko dut mundua,  
galtzen ez badut zentzua.

### **4.**

Goizean hasiz lanean,  
arratsa heldu denean,  
nagusi naiz mahainean.  
Kristau bat ona dut hartu  
nik emaztea hartzean.  
Ez du mehe egunean  
sartuko, uste gabean,  
txingar hezurrik eltzean.

### **6.**

Landako hiru behiak,  
esnez haunditu errapeak,  
aratxe eta ergiak.  
Bi idi haundi kopeta-txuri,  
bizkar-beltz, adar-haundiak,  
zikiro, bildots guriak,  
ahuntzak eta ardiak...  
Nereak dira guztiak!

## NERE SENTIMENTUA

---

Nere sentimendua nahi det deklaratu:  
Ameriketan nago hau ezin ukatu; (Bi)  
hemen eginagatik ondo gobernatu,  
horkuaz egiten naiz asko akordatu.

Honuntz etorri nintzan utzirikan ama,  
anai-arrebak eta familia dana; (Bi)  
egitiagatikan desio nuena,  
geroztik triste nago, ai! nere barrena.

Hamazazpi urtetan banuen segira:  
neska gazte guztiak neroni begira; (Bi)  
lurrik ikutu gabe, gorputzari jira,  
orduho arintasunak asentatu dira.

Gorputz ederra nuen, dantzari arina,  
bainan ez da izaten betiko egina; (Bi)  
orain eginagatik hemen ahalegina,  
ez gera libertitzen orduan adina.

Horko bizimoduaz oso aspertuak,  
onerako ziraden gure desiuak; (Bi)  
orain etxera berriz emanik pausuak  
hemen bizi gerade erdi-mudatuak.

Despedida dijua sei bertso hoiekin,  
anaia konformatu horrenbesterekin; (Bi)  
nere gustua hau da, nahi badezu jakin:  
beste horrenbeste jarri, aio Joxe Juakin. (Bi)

## OI, AMA ESKUAL HERRI

---

Anaia etxen da ezküntü,  
bükatu niz, oain joaitera  
ene opilaren egitera  
Pariserat banüazü.

**Oi, ama Eskual Herri goxua,  
zutandik urrun triste banua,  
adios, gaixo etxen dena,  
adios, Xiberua. (bi)**

Pariseko bizitzia  
lan kostüzüriaz bagiazü,  
bena berantzen zütadazü  
zure berriz ikustia.

**Oi, ama Eskual Herri goxua,  
zutandik urrun triste banua,  
adios, gaixo etxen dena,  
adios, Xiberua. (bi)**

Hitzak: Piarres Bordazahar "Etxahun-Iruri" / Musika: Herrikoa  
Abeslaria: Benito Lertxundi "Itzaltzuko bardoari" (1981)

# OI, KANTA BERRI

---

**1.**

Oi kanta berri ixilik nago  
orain duela aspaldi,  
zuretzat nuen kar bero hura  
suntsitu ez da dirudi.  
Beste lanetan iragan ditut  
hainitz egun ta gau-aldi,  
bainan oraino ez dut ukatu  
Euskara ez da Euskadi.

**2.**

Oi kanta berri bihotzetikan  
ezpainetarat jalaia,  
Euskal airean bihotzen zaitut,  
zu neure mezularia.  
Jende artean izatu banaiz  
beresle xamurgarria,  
izan zaite zu ene partetik  
bakezale den xoria.

**3.**

Oi kanta berri izan zaite zu  
anai arteko zubia  
batasunetik libertatera  
gidatzen duen bidea.  
Kartzelan den abertzaleari  
emozu doi bakargia  
etsiturikan den bihotzari  
esperantzaun bizia.

**4.**

Oi kanta berri gure herriak  
behar du bide eta zubi,  
rtxetan ere baitezpadako  
argiarekin, ur garbi.  
Horiek denak ez dire aski  
bizi badien Euskadi,  
hainbat oraino beharko ditut  
kanta bat eta kanta bi. (bi)

## **OI, PELLO, PELLO**

---

-“Oi, Pello, Pello, logale nauk eta jinen niza oherat?”

-“Irun ezan eta gero, gero, gero, irun ezan eta gero, gero bai.”

-“Oi, Pello, Pello, irun diat eta jinen niza oherat?”

-“Astalka zan eta gero, gero, gero, astalka zan eta gero, gero bai.”

-“Oi, Pello, Pello, astalkatu diat eta jinen niza oherat?”

-“Arilka zan eta gero, gero, gero, arilka zan eta gero, gero bai.”

-“Oi, Pello, Pello, arilkatu diat eta jinen niza oherat?”

-“Xuri zan eta gero, gero, gero xuri zan eta gero, gero bai.”

-“Oi, Pello, Pello, xuritu diat eta jinen niza oherat?”

-“Argia dun eta bihar, bihar, bihar, argia dun eta jinen hiz bihar.”

Herri kanta / Abeslaria: Mikel Laboa “Azken” (1964) / “Lau-bost” (1980)  
Txanbela “Arin-arinketan” (1987) / Oskorri “The pub ibiltaria 2” (1998)

# PELLO JOXEPE

---

## 1.

Pello Joxepe tabernan dala  
haurra jaio da Larraulen (Bi)  
etxera joan da esan omen du:  
-Ez da neria izanen,  
beraren amak topa dezala  
haur horrek aita zein duen.

## 3.

Zure semia besuan daukat  
senarra aldamenian (Bi)  
orain denborik eztaukat eta  
zuazkit ordu onian  
neronek abisatuko zaizut  
garaia datorrenian.

## 2.

Hau pena eta pesadunbria!  
Senarrak haurra ukatu (Bi)  
Pello Joxepe bihotz neria  
haur horrek aita zu zaitu  
haur horrentzako beste jaberik  
ezin nezake topatu.

## 4.

Fortunosua nintzela baina  
ni naiz fortuna gabia, (Bi)  
abade batek eraman dizkit  
umea eta andria:  
haurra berea bazuen ere  
andrea nuen neria.

## 5.

Patzientzia hartu bihar da  
munduan Pello Josepe, (Bi)  
andria ere zuria izanda  
haurra bestena diote;  
gizonen faltan igarotzen da  
basoan zenbait larrarte.

Herri kanta / Abeslaria: Soroak "Soroak" (1963) / Carlos Fagoaga "San Sebastián en fiestas" (1968)  
"Canciones vascas" (1970) / Oskarbi "Pello Joxepe" (1969) / Urko "Bihotz bihotzez" (1986) "Sagardoa" (1991)  
Oskorri "The pub ibiltaria 2" (1998) / Paco Ibañez/Imanol "Oroitzen" (1999)

## POTTOKA

---

Pottoka mendian jauzika ibilki  
buztana airean salbaia iduri.  
Ezin harrapatuz Txomin da erori  
pottoka nausi da gure gizonari. (bi)

Denboran pottokak ez emaiten sosa  
ez zuen ez egiten Parisen afera  
Neuilly-n ibiltzeko ez zuen usain ona  
adixkirendako ez aski ederra. (bi)

Txominek menditik jautsi du pottoka  
ileak mozturik pentzetan emana  
egun guziet hartzen bere azukrea  
iduri du orain Vincennes-en sortua. (bi)

## PRIMA EIJERRA

---

Prima eijerra, zütaz fidatürik,  
anitx bagira oro tronpatürik!  
enia zirenez erraidazu bai ala ez  
bestela banua  
desertiala nigarrez ürtzera.

Desertiala joan nahi bazira,  
arren zuaza, oi, bena berhala!  
Etzitiala jin hartzara nigana  
bestela gogua  
dolütüren zaizü, amoros gaixua.

Nitan etsenplu nahi düanak hartü,  
ene malurrak parerik ez baitü.  
Xarmangarri bat nik bainian maitatü  
fidatü, tronpatü!  
Sekula jagoiti ikhusi ezpanü!

Mintzo zirade arrazu gabetarik  
ezukala nik zur(e) amodiorik;  
zu beno lehenik bainüan besterik:  
maiterik, fidelik,  
hor eztereitzüt egiten ogenik.



## SALAMANCARA

---

Aita Jainkoak egin banindu  
zeruetako giltzari  
azken orduan jakingo nuen  
atea nori ireki:  
lehenengo aitari,  
gero amari,  
gero anai-arrebari,  
ta... azken orduan, ixil-ixilik,  
ene maite politari.

Gazte gaztetik aitik ta amak  
fraile ninduten nonbratu  
eta estudioak ikasitzera  
Salamancara bialdu.  
Salamankara  
nindoalarik  
bidean nuen pentsatu  
estudiante tunante baino  
hobe nuela ezkondu.

Ezkondu nintzan,  
bai ni ezkondu  
baita ere ongi damutu,  
praka beltzian hari zuria  
ez zait sekula faltatu.  
Praka beltzian hari zuria,  
txaketa mangagabea,  
horregatikan deitzen didate  
arlotte miserablea.

## SASITIK SASIRA (Zazpiak oihal batetik)

---

### 1.

Mundu guziak aditutzen du  
euskaldunaren negarra,  
alde batera nahiago nuke  
ez banintz hemengotarra.  
Enpeinatzea ez bada libre  
alferrik dugu indarra,  
hau da xoriak gari tartean  
goseak egon beharra.

### 3.

Antzerki hontan lau pertsonaia  
ta jokalaria bakarra,  
arbolak berak erakusten du  
hostoa eta adarra.  
Enpeinatzea ez bada libre  
alferrik dugu indarra,  
hau da xoriak gari tartean  
goseak egon beharra.

### 2.

Sutan pizturik darrai oraindik  
zugaitz berriz lehengo gerra,  
oharkabeen ez zen mintzatu  
Txirrita poeta zaharra.  
Enpeinatzea ez bada libre  
alferrik dugu indarra,  
hau da xoriak gari tartean  
goseak egon beharra.

### 4.

Zazpi ahizparen gai den oihala  
ebakirikan erditik  
alde batera hiru soineko,  
utzirikan lau bestetik;  
guraiziakin bereizi arren  
bakoitza bere aldetik  
ezagutzen da jantzi direla  
zazpiak oihal batetik.

### 5.

Oihal bere da gure jantzia  
sortu gintuzten unetik,  
ez du munduak kemenik sortu  
kentzeko gure soinetik.  
Guraiziakin bereizi arren  
bakoitza bere aldetik  
ezagutzen da jantzi direla  
zazpiak oihal batetik. (bi)

# TOPA DAGIGUN

---

**Errioxar, Baigorriko,  
Bakio nahiz Getariko  
topa dagigun eta bakean  
bizi gaitezen betiko.(bi)**

Umeak arretaz horni,  
gazteei hitza eskeini,  
gaztetxoago eta haurrago  
izan gaitezen geroni. (bi)

**Errioxar, Baigorriko...**

Ez uka amonei hitzik,  
entzun agureei pozik,  
zaharra ez da izandakoa  
luzaroan dena baizik. (bi)

**Errioxar, Baigorriko...**

Hierarkia da lehorra,  
harremana emankorra,  
errespetoan dago gordeta  
emakumeen altxorra. (bi)

**Errioxar, Baigorriko...**

## **TRISTE BIZI NAIZ ETA**

---

Triste bizi naiz eta  
hilko banintz hobe,  
badaukat bihotzian  
hainbat atsekabe. (bi)  
Maite bat maitatzen det  
baina haren jabe  
sekulan izateko  
esperantzik gabe. (bi)

Bihotz baten lekuan  
mila banituzke  
zuretzako, maitia,  
izango lirake. (bi)  
Baina mila lekuan  
bat besterik ez det,  
har zazu, ba, maitia,  
bat hau mila bider. (bi)

Nire maite polita,  
nola zera bizi?  
zortzi egun hauetan  
ez zaitut ikusi. (bi)  
Badakit zabiltzala  
nigandik ihesi,  
ez didazu ematen  
atsekabe gutxi. (bi)

Hitzak: Indalezio Bizkarrondo "Bilintx" / Musika: Herrikoa / Abeslaria: Txomin Artola "Berriz arte" (1988)

Imanol – Paco Ibañez "Oroitzen" (1999) / Oskorri "The pub ibiltaria 5" (2001)

## TXAKURRAREN PARTIA

---

Gu gazte ginadela txalupa guziak  
txakurtxo bat ohi zuten ontzi barrenian;  
begi erne, abilla, ez zan zaunkaria,  
iges zihoan arraia harrapatzailea.

Seme, esango dizut nola gertatzen zan  
puñittutako arraia, suelto batzuetan  
legatzak ospa, iges, txakurra jauzten zan  
ta bet-betan arraia hartzen zun hortzetan.

Lana horren saria “txakurren partia”  
deitzen genion guziok, ongi merezia;  
maitea-maitea zan txakur ehiztaria,  
txalupa betetzen zun anima gabiak.

Unea etorri da zuri kontatzeko  
zer-nolako txakurra zan gure Txuriko,  
uhin izugarriak ez zun izutuko,  
arraia utzi baino, lehenago ittoko.

Goiz itsusi batian, ez naiz ez ahaztuko,  
bere lana beteaz jauzi zan Txuriko  
baga handi artian, ehiza ez utziko,  
legatz handi batekin itto zan betiko.

# TXALAPARTA

---

Tiriki-trauki  
hiru ta lau dira zazpi,  
xurruxumurru  
bat batean dira urrun,  
tiriki-trauki  
ezker eskubi  
bien artean dago zubi,  
hots bare-bare  
hor leiho sare  
hiru ta lau dira bi... (hiru)

Tiriki-trauki...  
.....  
hiru ta lau dira...  
BAT, BAT, BAT, BAT.

Hitzak eta musika: Gorka Knörr / Abeslaria: Gorka Knörr "Txalaparta" (1976)

## TXANTXIKITIN

---

Txantxikitin, txantxikitin,  
genbiltzarian  
Elorrioko kalia,  
hamalau atso tronpeta joten  
zazpi astoren gainean. (bi)

Astoak ziren txiki-txikiak  
atsoak berriz, kristonak!  
Zelan demontre  
konpontzen ziran  
zazpi astoren gainian. (bi)

**Saltzen, saltzen,  
txakur txiki baten karameluak,  
gustan muy bien!  
esaten dau konfiteruak. (bi)**

Cuando vamos a Otxandiano  
Santamañe egunian, mekauden la mar!  
tomaremos txokolate  
Bulkanoren aurrian,  
cantaremos una salve  
Santamañen aurrian,  
bailaremos un auresku  
plaziaren erdian.

**Saltzen, saltzen,... (bi)**

Otxandioko herri kanta

## TXIKIA

---

Txikia zuen guda-izena  
bera gizon osoa izan arren,  
Mendizabal Sasetaren hurrena,  
biak txiki, bizkor eta lerdin.

Saseta hil zen gudarien aurrean,  
Mendizabal hil zaigu bakarrik,  
baina biek daukate herri osoa  
atzo ta gaur heien atzetik  
Euskadirentzat hil ziren ta  
gorputza arantzaz beterik.

Harro hadi, Kantauri itsasoa,  
ta haien betiko loa betiko kanta zak,  
geroari esaiok olatuetan  
herri izarrak ez direla itzaltzen,  
gure hurrek biharko ikastoletan  
haien izenak abestu ditzaten  
arantzetan biak hil bait ziren.

Harro hadi, kantauri itsasoa  
ta haien betiko loa betiko kanta zak,  
geroari esaiok olatuetan  
herri izarrak ez direla itzaltzen,  
gure hurrek biharko ikastoletan  
haien izenak abestu ditzaten  
herriarentzat baiak hil bait ziren.

Hitzak eta musika: Telesforo Monzon / Abeslaria: Pantxoa eta Peio "1969-1991 bilduma"(1991)



## **TXORIA TXORI**

---

Hegoak ebaki banizkio  
nerea izango zen,  
ez zuen aldegingo. (bi)

Bainan horrela  
ez zen gehiago txoria izango (bi)  
eta nik, txoria nuen maite. (bi)

Hitzak: J.A. Artze / Musika: Mikel Laboa / Abeslaria: Mikel Laboa "Mikel Laboa Bat Hiru" (1974)

## URRIAREN 28a

---

San Simon eta San Juda,  
joan zen uda  
eta negua heldu da. (bi)

Ez baletor hobe,  
bizi gera pobre  
eremu latz honetan,  
ez gera hain onak benetan.

Ez dugu zaldirik,  
ez gera zaldunak,  
ez dugu abererik,  
ez gera aberatsak,  
euskera guk dugu,  
gu gera euskaldunak,  
euskera guk dugu,  
gu gera euskaldunak.

Hitzak, musika: Xabier Lete / Abeslaria: Xabier Lete (1969)

## USO XURIA

---

### 1.

Izar batek zerutik  
klaritatez beterik  
Gauaz ere argitzen du  
beste ororen gainetik;  
dudatzen dut baduenentz  
mundu hontan parerik. (Bi)

### 3.

Uso zuria errazu  
nora joaten zaren zu.  
Espainiako bortuak oro  
elurrez beteak dituzu;  
gaurko zure ostatu  
gure etxean baduzu. (Bi)

### 5.

Usoa eder airean,  
ederrago nahainean; (Bi)  
koloreak xuri-gorri,  
perfetzonez betia;  
ez eta ere Frantzian,  
iguzkiaren azpian. (Bi)

### 2.

Izar haren begia  
hain da xarmangarria,  
koloreak xuri-gorri,  
perfekzinez betea,  
eria ere senda liro  
haren begitarreak. (Bi)

### 4.

Ez nau izutzen elurrak  
ez eta ere gau ilunak,  
maitegatik pasa nitzake  
gauak eta egunak,  
gauak eta egunak,  
desertu eta oihanak. (Bi)

### 6.

Maite nauzula diozu,  
nik ere maite zaitut zu; (Bi)  
dion bezala maite banauzu  
elizaz feda nezazu,  
elizaz feda nezazu  
ta gero zurea nukezu. (Bi)

Herri kanta / Abeslaria: Imanol "Erromantzeak" (1984) / Ganbara "Ganbaratik" (1989)

Txomin Artola & Amaia Zubiria "Folk-lore sorta-1" (1991)

## **XALBADORREN HERIOTZEAN**

---

Adiskide bat bazen,  
orotan bihozbera,  
poesiaren hegoek,  
sentimenduzko bertsoek  
antzaldatzen zutena.

Plazetako kantari,  
bakardadez josia,  
hitzen lihoa iruten,  
bere barnean irauten  
oinazez ikasia, ikasia.

**Non hago, zer larretan,  
Urepeleko artzaina?,  
mendi hegaletan gora,  
oroitzapenen gerora  
ihesetan joan hintzana. (bi)**

Hesia urraturik  
libratu huen kanta,  
lotura guztietatik,  
gorputzaren mugetatik  
aske sentitu nahirik.

Azken hatsa huela,  
bertsorik sakonena,  
inoiz esan ezin diren  
estalitako egien  
oihurik bortitzena, bortitzena.

**Non hago...**

Hitzak, musika: Xabier Lete / Abeslaria: Xabier Lete "Lore bat, zauri bat" (1978) - "Hurbil iragana" (1992)  
Erramun Martinikorena "Olerkariaren oihartzun" (1993) - "Herrian" (1997)

## XARMENGARRIA ZIRA

---

Xarmengarria zira, eder eta gazte,  
ene bihotzak ez du zu baizikan maite,  
bertze zenbait bezela ote zira libre?  
zurekin ezkontzeaz dudarik ez nuke. (bi)

Xuri-gorria zira, arrosa bezala,  
Profetak ere dira mintzo hola-hola.  
Araberan bazinu gorputza horrela  
iduriko zinuen... Zeruko izarra. (bi)

Oi, maitea, zatozkit plazer duzunean,  
nehork ikusi gabe ilhun-abarrean;  
lagun bat badukezu joaiteko bidean,  
hark ezarriren zaitu trankil bihotzean. (bi)

Plazer eginen duzu ixiltzen bazira  
haur iñorantak hola tronpatzen baitira.  
Ez da enetzat ina holako segida...  
Bertzalde zure baitan ez naiteke fida. (bi)

Adios beraz orai, ene arraroa,  
hori dela medio herritik banoa;  
bihotza trixte eta kexuan gogoia,  
beti jarraikiren zait zur'amodioa. (bi)

Hitzak, musika: Herri kanta, Aita Donostia / Abeslaria: Carlos Munguia "Canciones vascas" (1966)  
Pantxoa eta Peio "Bai euskarari" (1979) / Imanol "Erromantzeak" (1984) / Easo Abesbatza "Ama" (1999)  
Ozenki Otxotea "Betiko abestiak" (2002) / Oskorri "The pub ibiltaria 8" (2003)

# XORIERI MINTZO ZEN

---

**Xorieri mintzo zen  
Mintzo zen errekarri  
Oihaneko zuhaitzeri  
ta zeruko izarrerri  
Mintzo zen haizeari  
Xoro batentzat zaukaten  
Xorieri mintzo zen  
Xoro batentzat zaukaten.**

Ez zakien irakurtzen gizonen liburutan  
Bainan ongi bazakien zeruko seinaletan  
Zeruko seinaletan ta jenden bihotzetan.

Hurrek zuten Harrikatzen zahar gaztek trufatzen  
Etxekoek berek ongi laneko baliotzen  
Laneko baliotzen eta gosez pagatzen.

Hil da xorua bakarrik bakarrik da ehortzi  
Ez zeri han Kristau bat ere salbu lau hilketari  
Salbu lau hilketari ta apeza kantari.

Hil hobian ezartzean haizea zen gelditu  
Xoriak ziren ixildu zerua zen goibeldu  
Zerua zen goibeldu ta jendea oroitu.

Hitzak: Mixel Labeguerie / Musika: Eneko Labeguerie / Abeslaria: Ortziken "Ortziken" (1976)  
Erramun Martikorena "Olerkarien oihartzun" (1993) / Aritzak "Mixel Labeguerieren kantak (2)" (2000)

## ZENBAT GERA

---

Zenbat gera?  
Lau, bat,  
hiru, bost, zazpi? (bi)

Zer egin degu? Ezer ez.  
Zer egiten degu? Alkar jo.  
Zer egingo degu? Alkar hil?...  
Zer egingo degu? Alkar hil?...

Gure asmoak, esperantzak,  
herria, askatasuna,  
justizia, pakea,  
egia, maitasuna...  
mitoak, hitz hutsak.





Zenbat gera...  
lau, bat,  
hiru, bost, zazpi?

Zer egin degu? Ezer ez.  
Zer egiten degu? Alkar jo.  
Zer egingo degu? Alkar hil?...  
Zer egingo degu? Alkar hil?...

Hori ez!... Hori ez!...  
Hori ez!... Hori ez!...

ehige  **bbk** 





ESKOLA  
PUBLIKOA  
KANTARI



ehige  **bbk** 